# I. Kapitulua
# Zerga Harremanak

# Capítulo I
# Relaciones Tributarias

## 1. EKONOMIA-ITUNA

### 1.a. Sorrera eta bilakaera historikoa

Ekonomia Ituna, historian, euskal foru-erregimenaren funtsezko araua izanik, Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak antolatzeko elementua izan da.

Euskal Herriko lehen Ekonomia Ituntzat jotzen dute 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretua, eta 8 urtez iraun zuen. 1876ko uztailaren 21eko Legea (Foruak indargabetzekoa) eta 1877ko azaroaren 13ko Dekretua (Ekonomia Itunaren arauak ezarri zituena) aldarrikatu zirenean abiatutako prozesu negoziatzailearen fruitu izan zen, urte horretan lurralde historiko bakoitzak Estatuari ordaindu beharreko kuota orokorrak ezarri baitziren.

Gero, 1887ko Aurrekontu Orokorren Legeko 14 artikuluaren bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, 8 urterako. Horren ondoren, 1894ko otsailaren 1eko Ituna, 1906ko abenduaren 13koa eta 1925eko ekainaren 9koa etorri ziren, eta, guztira, 25 urteko indarraldia izan zuten.

## 1. CONCIERTO ECONÓMICO

### 1.a. Origen y evolución histórica

Históricamente, constituyendo una parte esencial de la foralidad vasca, el Concierto Económico ha sido un elemento vertebrador de las relaciones entre el Estado y el País Vasco.

El Real Decreto de 28 de febrero de 1878 es considerado el primer Concierto Económico del País Vasco y tuvo una vigencia de 8 años. Fue fruto del proceso negociador abierto tras la promulgación de la Ley de 21 de julio de 1876, en la que se abolieron los Fueros, y del Decreto de 13 de noviembre de 1877 que sienta las bases del régimen económico de concierto, al establecer unas cuotas globales que cada uno de los Territorios Históricos había de satisfacer al Estado en ese año.

Posteriormente, mediante el artículo 14 de la Ley de Presupuestos Generales de 1887 se aprueba un nuevo Concierto Económico, también vigente para 8 años. A éste le siguen los Conciertos de 1 de febrero de 1894, de 13 de diciembre de 1906 y de 9 de junio de 1925, con una vigencia de 25 años.

Hala ere, 1937ko diktadura frankistak indarrik gabe utzi zuen Bizkaia eta Gipuzkoarako hitzartutako zerga-araudia, eta horregatik, 1952ko otsailaren 29ko seigarren Ekonomia Ituna Arabarako bakarrik aldarrikatu zen. Itun horren ondoren etorri zen, trantsizio-politikoa egin zeneko garai hartan, 1976ko azaroaren 26koa.

Sin embargo, en 1937 la dictadura franquista dejó sin efecto el régimen tributario concertado de Bizkaia y Gipuzkoa, lo que implicó que el sexto Concierto Económico, de 29 de febrero de 1952, se dictara exclusivamente para Álava. A este Concierto le sucedió, ya en la transición política, el de 26 de noviembre de 1976.

1978ko Konstituzioaren eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zenean, 12/1981 Legea, maiatzaren 13koa hitzartu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoarekin Euskal Ituna onartu baitzen, 20 urteko iraupenerako.

Después de la aprobación de la Constitución de 1978 y del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, se pacta la Ley 12/1981, de 13 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, con una vigencia de 20 años.

Azkenik, pilatutako esperientziarekin, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez, beste Ekonomia Itun bat onartu zen, epe mugagabea zeukala.

Por último, con la aportación de la experiencia acumulada, mediante la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se aprueba un nuevo Concierto Económico, con carácter indefinido.

## 1.b. Esparru juridikoa

Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza- eta zerga-harremanak arautzen ditu Ekonomia itunak; lege baten bidez onartu behar da. Oinarria Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian dago; horren bitartez Konstituzioak babesa eta begirunea eskaini dizkie foru-lurraldeen eskubide historikoei, eta foru-araubidea, oro har, aldiro eguneratu dadila agindu du. Beste oinarria, berriz, Autonomi Estatutuaren III titulua da, zeinak aitortzen duen lurralde historikoetako instituzioen arautzeko gaitasuna, horiek, bere esparruan, zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dutela berresten baitu.

## 1.b. Marco jurídico

El Concierto Económico regula las singulares relaciones tributarias y financieras entre el Estado y el País Vasco, aprobándose por Ley. Se fundamenta en la disposición adicional primera de la Constitución, que ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales, ordenando la actualización general del régimen foral, y en el Título III del Estatuto de Autonomía, que reconoce la capacidad normativa de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, afirmando que éstas podrán mantener, establecer y regular dentro de su territorio su propio sistema tributario.

Foru-erakundeek aitortua dute zerga-ahalmena, eta hori da Euskadiko zerga-sistemaren berezitasunaren funtsezko osagaia. Hala, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza- eta zerga-harremanak behar bezala antolatzea eskatzen du sistema horrek. Ildo horretatik, Autonomia Estatutuak arautzen du harremanok tradiziozko foru-sistemaren bitartez araupetu behar direla, ekonomia-itunen edo hitzarmenen bitartez.

Este reconocimiento de la potestad tributaria foral, rasgo esencial de la especialidad vasca, tiene como consecuencia la necesaria adecuación y ordenamiento de las relaciones de carácter tributario y financiero entre el Estado y el País Vasco, estableciéndose para ello en el propio Estatuto que estas relaciones se regularán mediante el sistema foral tradicional de Concierto Económico.

Era berean, Estatutuan bertan xedatzen da, Itunaren erregimena Konstituzioan araututako solidaritate-printzipioa betez aplikatuko dela eta bere edukia oinarrizko bi printzipioetara egokituko dela: zerga-harremanetara batetik, eta, erakundeen arteko finantza-harremanetara bestetik. Beraz, lurralde historikoetako instituzio eskumendunen zerga-ahalmena aitortzen da, haien esparruan zerga-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko. Hori guztia Estatuaren zerga-egitura nagusiari jarraituz, Ekonomia Itunak berak Estatuarekin koordinazio, harmonizazio fiskal eta lankidetzarako dituen arauak betez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan

Así mismo, en el Estatuto se dispone que el régimen de Concierto se aplicará de acuerdo al principio constitucional de solidaridad y su contenido se acomodará en torno a dos principios básicos, relativos, por un lado, a las relaciones tributarias y, por otro, a las relaciones financieras entre los mismos. Se reconoce, por tanto, la capacidad de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular dentro de su territorio el régimen tributario, atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado

helburu horrekin Eusko Legebiltzarrak arautzen duenari lotuz egin behar da.

contenga el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para estos fines dentro de la Comunidad Autónoma.

Halaber, foru-aldundien eskumena da haien lurraldean zerga guztien ordainarazpena, gestioa, likidazioa, bilketa eta inspekzioa egitea; hala ere, horren salbuespen dira Aduanaren Errentan sartzen direnak eta gaur egun Monopolio Fiskalen bidez biltzen diren zergak. Hori guztia Estatuarekiko kolaborazioaren baitan eta Estatuaren goi-ikuskapeneko eskumenei eutsiz egingo da. Azken finean, zerga-esparruan arautzeko eta kudeatzeko ahalmen osoa aitortzen zaie lurralde historikoetako erakunde eskumendunei, fase guztietan eta, betiere, koordinazio, harmonizazio eta lankidetza fiskalaren gaineko arauak errespetatuz.

Además, se establece la capacidad de cada Diputación Foral, dentro de su Territorio Histórico, para exaccionar, gestionar, liquidar, recaudar e inspeccionar todos los impuestos, salvo los que se integran en la Renta de Aduanas y los que se recaudan a través de Monopolios Fiscales, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección. En definitiva, se reconoce la plena capacidad normativa y de gestión en el ámbito tributario de las Instituciones competentes de cada Territorio Histórico, en todas sus fases, respetando diferentes normas sobre coordinación, armonización y colaboración fiscal.

Bestalde, finantza-harremanak Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez zehazten dira. Horrela, Estatutuan adierazten da, EAEk Estatuari egingo dion ekarpena kopuru oso bat izango dela, eta erkidego autonomoak bere gain hartu gabeko Estatu-kargen kontribuzio gisa lurralde bakoitzak emandako kopuruez osatuko dela. Estatuko eta EAEko erakundeetako ordezkariek osatutako batzorde parekide batek zehaztuko du kupo osoa eta lurralde historiko bakoitzak ordaindu beharrekoa. Horrela adostutako kupoa legez onartu beharko da, Ekonomia Itunean finkatutako maiztasunarekin, urteka gaurkotu daitekeelarik, Itunean adieraziko den prozeduraz.

Por otra parte, las relaciones financieras se instrumentan mediante el cupo a pagar al Estado. Así, se afirma en el Estatuto que la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. Del mismo modo, se dice que la cuantificación del cupo global y los correspondientes a cada Territorio Histórico se realizará en el marco de una comisión paritaria Estado-País Vasco. El cupo, así acordado, deberá aprobarse por Ley, con la periodicidad que se fije en el Concierto, sin perjuicio de su actualización anual por el procedimiento que se establezca.

Autonomia Estatutuak xedatutakoa betez, 1981eko eta 2002ko Ekonomia Itunek bi kapitulu nagusi hauek dituzte:

- I. kapituluan, zerga-harremanak arautzen dira, zerga bakoitza ituntzeko modua ezarriz. Oinarri-oinarrian, zerga bakoitzaren lotuneak zehazten dira, foru-ogasunek Estatuko ogasunarekiko dituzten arau- eta gestio-eskumenak mugatzeko.

- II. kapitulua, kupoa eta finantza-harremanei dagokie eta bi atal ditu: arau orokorrak eta kupoa zehazteko metodologia. Bereganatu gabeko eskumenengatik, Estatuko zama orokorrei eusteko EAEk nola erantzun behar dion ezartzen du kapituluak. Berezitasun hori finantza-fluxuan gauzatzen da, Estatuari ordaindu beharreko kupoaren bidez.

Tanto el Concierto de 1981 como el Concierto de 2002 se articulan, conforme al Estatuto de Autonomía, en dos grandes capítulos:

- En el Capítulo I se recogen los aspectos relativos a los tributos, estableciéndose la concertación para las diferentes figuras tributarias. Básicamente, se determinan los puntos de conexión de cada impuesto para delimitar las competencias normativas y de gestión de las Haciendas Forales respecto a la Hacienda del Estado.

- El Capítulo II, referido al cupo y las relaciones financieras, comprende dos secciones: normas generales y metodología de determinación del cupo. Se establece la forma en que el País Vasco debe contribuir al sostenimiento de las cargas generales del Estado por competencias no asumidas. Esta singularidad se materializa en un flujo financiero, el cupo a abonar al Estado.

Bi Ekonomia Itunek adierazten dute, bigarren xedapen gehigarrian, Administrazioek adostu egin behar dituztela Itunen balizko aldaketak eta zergak

Ambos Conciertos prevén, disposición adicional segunda, la necesidad del común acuerdo entre Administraciones para su modificación en aquello

ituntzeko modua, Estatuaren zerga-sistemako aldaketetara egokitzeko. Indarrean dagoen Itunak behar hori zabaldu egiten du araugintzako aginpideen banaketa aldatzen bada eta aldaketa horrek zeharkako ezarpenari ere eragiten badio, edo zerga edo konturako ordainketa berririk sortzen bada.

Gainera, 2002ko Itun berriak III. kapitulu berri bat du, Ekonomia Itunaren Batzordeei eta Arbitraje Batzordeari buruzkoa. Kapitulu horren bidez, Administrazioen arteko lankidetza-printzipioa nabarmentzen da eta Ekonomia Ituna aplikatzerakoan segurtasun juridiko handiagoa lortzeko prozedurak indartzen dira.

## 1.c. Sistemaren ezaugarriak

Aurrez adierazitako guztiari erreparatuta, Ekonomia Itunaren sistemaren funtsezko elementuak ondoriozta daitezke. Horrela, honako hauek dira, labur adierazita, zerga-sistemaren oinarrizko ezaugarriak:

Itunpeko sistema.

Hori da sistemaren funtsezko ezaugarrietako bat, Administrazio bakoitzari dagozkion eskumenak eta haiek aitortutako ahalmenak erabilita, elkarren arteko harremanetarako arauak adosten dituzte; kasu honetan, zergen eta finantzen alorreko arauak. Ekonomia Itunak, beraz, itundutako legeak dira, eta izaera horixe bera dute hura egokitzeko eta aldatzeko bere legeek eta Kupoaren Bosturtekorako Legeek.

Zerga-gaietarako berezko araugintzako ahalmena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek eta Estatuak zergen arloko arauak egiteko ahalmena dute, berezko zerga-sistema egituratuz. Zerga-sistema ezberdinen garapen harmonikoa bermatzen dute harmonizazio fiskalak eta araugintzako eta ordainarazpeneko lotura-puntuek.

Zerga-gestiorako autonomia.

Foru-aldundiei dagokie zergak ordainarazi eta gestionatzeko prozedura ezartzea, fase guztietan, eta prozedura hori ez da lagapen baten ondorio ezartzen; aitzitik, beste zerga-administrazioekin batera burutzen den berezko ahalmenarena ondorio da.

que consideren conveniente y su adaptación a los cambios del sistema tributario del Estado que afecten a la concertación de los tributos. El Concierto vigente amplía esta necesidad de adaptación a aquellos casos en los que se produzca una alteración del reparto de competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta, se crearan nuevas figuran tributarias o pagos a cuenta.

En el nuevo Concierto de 2002, también, se incluye un nuevo Capítulo III, dedicado a las Comisiones y la Junta Arbitral, subrayándose de este modo el principio de colaboración entre Administraciones y reforzándose los procedimientos orientados a conseguir una mayor seguridad jurídica en la aplicación del Concierto Económico.

## 1.c. Características del sistema

De lo antes expuesto se desprenden los aspectos sustantivos del sistema de Concierto Económico y que pueden resumirse en las siguientes características básicas:

Sistema paccionado.

Éste es uno de sus rasgos esenciales, derivado de la consideración de las diferentes potestades que, en el ejercicio de sus respectivas competencias, acuerdan unas normas de relación, en este caso en los ámbitos tributario y financiero. Los Conciertos Económicos son, por tanto, leyes paccionadas, al igual que sus leyes de adaptación y modificación, y las Leyes Quinquenales de Cupo.

Potestad normativa tributaria propia.

Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, así como el Estado, disponen de la potestad normativa en materia tributaria, desarrollando y configurando su propio sistema tributario. La armonización fiscal y las conexiones normativas y exaccionadoras garantizan el desarrollo armónico de los distintos sistemas tributarios.

Autonomía de gestión tributaria.

El procedimiento de exacción y gestión tributaria, en todas sus fases, correspondiente a las Diputaciones Forales no es fruto de una cesión, sino una potestad propia que se ejerce, en su caso, en colaboración con otras administraciones tributarias.

Aldebakarreko arriskua.

EAEk bere gain hartu behar ditu Itunaren kudeaketatik eratorritako emaitzak, horiek onak ala txarrak izan. Foru-aldundiek lortutako diru-bilketan parte hartzen ez duen bezala, Estatuak ere ez du Autonomi Erkidegoko herri-gastuen estaldura bere gain hartzen. Bestalde, Estatuari eman beharreko kontribuzioa, kupoa, ez da EAEn jasotako diru-sarreren arabera kalkulatzen, aldagai exogenoen menpe baitago; hala nola, Estatuko Aurrekontu Orokorretan bereganatu gabeko eskumenetako gastuak.

Riesgo Unilateral.

Los resultados, buenos o malos, derivados de la gestión del Concierto corresponden sólo al País Vasco. Al igual que el Estado no participa de la recaudación obtenida por las Diputaciones Forales, tampoco asume la cobertura de los gastos públicos de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, la contribución al Estado, el cupo, no se calcula según los ingresos recaudados en el País Vasco, depende de variables exógenas como los gastos en competencias no asumidas de los Presupuestos Generales del Estado.

## 2. 1981EKO EKONOMIA-ITUNA

Maiatzaren 13ko 12/1981 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena, Ekonomia Itunaren ohiko foru-sistemaren lehen gauzapena izan zen, deskribatutako marko juridikoaren barruan.

Zerga-sistemen eboluziora egokitzeko, 20 urteko indarraldian, honako aldaketa eta egokitzapenak egin zitzaizkion 1981eko Itunari:

- 49/1985 Legea, abenduaren 27koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergara egokitzen dena. 1985eko irailaren 27ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.
- 2/1990 Legea, ekainaren 8koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legera eta Tasa eta prezio publikoen Legera egokitzen dena. 1988eko abenduaren 28ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.
- 27/1990 Legea, abenduaren 26koa, Ekonomia Ituna partzialki aldatzen duena. 1990 urriaren 4ko Batzorde Mistoaren Erabakia.
- 11/1993 Legea, abenduaren 13koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legera eta Zerga Berezien Legera egokitzen dena. 1992eko abenduaren 17ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.
- 38/1997 Legea, abuztuaren 4koa, Ekonomia Ituna aldatzea onartzekoa. 1997eko maiatzaren 27ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.

Kupoaren bost urteko lau lege onartu ziren, eta horien arabera Euskal Autonomia Erkidegoko kupoa zehazteko metodologia onartu zen:

## 2. CONCIERTO ECONÓMICO DE 1981

La Ley 12/1981, de 13 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la CAPV, significó, dentro del marco jurídico descrito, la primera materialización del sistema foral tradicional de Concierto.

En sus 20 años de vigencia, como consecuencia de la evolución de los sistemas tributarios, el Concierto de 1981 fue objeto de las siguientes adaptaciones y modificaciones:

- Ley 49/1985, de 27 de diciembre, de adaptación al Impuesto sobre el Valor Añadido. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de septiembre de 1985.
- Ley 2/1990, de 8 de junio, de adaptación a la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y a la Ley de Tasas y Precios Públicos. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 28 de diciembre de 1988.
- Ley 27/1990, de 26 de diciembre, por la que se modifica parcialmente el Concierto Económico. Acuerdo de la Comisión Mixta de 4 de octubre de 1990.
- Ley 11/1993, de 13 de diciembre, de adaptación a la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido y a la Ley de Impuestos Especiales. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 17 de diciembre de 1992.
- Ley 38/1997, de 4 de agosto, por la que se aprueba la modificación del Concierto Económico. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de mayo de 1997.

También, se aprobaron cuatro Leyes Quinquenales de Cupo, por las que se aprueba la metodología de determinación del cupo del País Vasco:

- 43/1988 eta 44/1988 Legeak, abenduaren 28koa, 1982-1986 eta 1987-1991 bosturterako. 1987eko abenduaren 4ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.

- 7/1993 Legea, apirilaren 16koa, 1992-1996 bosturterako. 1992ko maiatzaren 6ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.

- 37/1997 Legea, abuztuaren 4koa, 1997-2001 bosturterako. 1997ko maiatzaren 27ko Kupoaren Batzorde Mistoaren erabakia.

## 2.a. Balio Erantsiaren gaineko Zergara egokitzea

Espainia Europako Ekonomia Elkartean sartzeak izugarrizko aldaketa ekarri zuen zeharkako zerga-ezarpenean, gai horretan Elkarteko arau harmonizatzaileak betetzerakoan, eta Ekonomia Ituna geroago etorritako errealitate berri horretara egokitu zen. 1986az geroztik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) da zeharkako ezarpenaren erreferentzia, eragina izan baitu ordura arte indarrean zeuden zeharkako zergetan.

Egokitze hori, beraz, zerga berria ituntzea izan zen, desagertutako zergen gaineko aipamenak kenduz; hau da, Enpresen Trafikoaren gaineko Zerga Nagusia eta Luxu-zergarenak. Gainera, Administrazio bakoitzari ezartzeko BEZaren (bere esparruko benetako kontsumoaren araberakoa) eta ogasun bakoitzak benetan jasotakoaren arteko aldeagatik finantza-zuzenketa berria sortu zen. Barruko Kargak Konpentsatzeko Zergari eta Esportazioaren Zerga-arinketa Fiskalari zegozkien zuzenketak ordeztu zituen finantza-doiketa horrek.

## 2.b. Toki Ogasunak arautzeko Legea eta Tasa eta Prezio Publikoen Legea

Bigarren egokitzapena, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearekin egin zen, eta Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legearekin. Tokiko zerga-sistemaren berrikuntza ekarri zuen, eta zerga-figura berriak sortu ziren. Zerga hauek eratu zuten zerga-ezarpenaren egitura berria: Ondasun Higiezinen Zergak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gainekoak eta Hiri-izaerako Lur-sailen Balioaren Igoeraren gaineko Zergak.

- Leyes 43/1988 y 44/1988, de 28 de diciembre, para los quinquenios 1982-1986 y 1987-1991. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 4 de diciembre de 1987.

- Ley 7/1993, de 16 de abril, para el quinquenio 1992-1996. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de mayo de 1992.

- Ley 37/1997, de 4 de agosto, para el quinquenio 1997-2001. Acuerdo de la Comisión Mixta de Cupo de 27 de mayo de 1997.

## 2.a. Adaptación al Impuesto sobre el Valor Añadido

La incorporación de España a la Comunidad Económica Europea significó un cambio radical de la imposición indirecta, en cumplimiento de las normas armonizadoras comunitarias en esta materia, adaptándose el Concierto Económico a esta nueva realidad sobrevenida. Desde 1986 la imposición indirecta gira en torno al Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA), afectando a los impuestos indirectos hasta entonces vigentes.

Esta adaptación consistió, por lo tanto, en concertar el nuevo Impuesto, eliminando las referencias a los tributos desaparecidos, Impuesto General sobre el Tráfico de Empresas e Impuesto de Lujo. También, se creó un nuevo ajuste financiero por la diferencia entre el IVA atribuible a cada Administración, según el consumo real de su ámbito y el efectivamente recaudado por cada una de las Haciendas, que sustituía a los ajustes por el Impuesto de Compensación de Gravámenes Interiores y la Desgravación Fiscal a la Exportación.

## 2.b. Ley Reguladora de las Haciendas Locales y Ley de Tasas y Precios Públicos

La segunda adaptación se produjo con la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales y con la Ley 8/1989, de 13 de abril, de Tasas y Precios Públicos. Supuso la reforma del sistema impositivo local y la aparición de nuevas figuras tributarias. La nueva imposición municipal se configuró en torno al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, el Impuesto sobre Actividades Económicas, el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras y el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Halaber, gainerako zergen antolaketa juridiko berria egin zen, Tasa eta Kontribuzio Berezietan bilduz, eta Prezio Publikoez eratutako zuzenbide publikoko diru-sarreren kategoria berria arautu zen.

Además, se conformó una nueva ordenación jurídica del resto de tributos, como las Tasas y las Contribuciones Especiales, regulándose una nueva categoría de ingresos de derecho público constituida por los Precios Públicos.

Zerga-antolamendu berria zerga-figura ezberdinetan eraikitzen ari zen bitartean, ituntze-sistema figura berri horietara egokitu behar izan zen eta Itunean aldaketak sartu. Testuaren hobekuntzak aparte utzita, osagai teknikoa eta automatismoa bereizgarri izan zituen egokitzapenak; hala ere, ez zen aldatu lehenagotik zegoen Estatuaren eta EAEren arteko eskumen-banaketa, lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren lurraldean zerga-araubidea antolatzeko duten zerga-ahalmenaren aitorpenean oinarritutakoa.

En tanto el nuevo ordenamiento tributario se traza sobre unas figuras tributarias distintas, la concertación se adaptó a esas nuevas figuras y se hizo preciso introducir cambios en el Concierto. Al margen de las mejoras del texto, esta adaptación se caracterizó por su componente técnico y de automatismo, que no alteró el reparto de competencias preexistente entre el Estado y el País Vasco, basado en el reconocimiento de la potestad tributaria de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para articular el sistema tributario local en su respectivo territorio.

## 2.c. 27/1990 Legearen bidez zati bat aldatzea

Sozietateen gaineko Zerga ituntzean hartutako eskarmentua baliatu zen aldaketa hori egiteko. Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoren arteko Ekonomia Itunean ezarritako sistemarekin, agerian geratu zen zailtasunak zeudela negozio eta diskordantzien kopuru erlatiboaren irizpidea aplikatzerakoan. Lotura-puntu berria Balio Erantsiaren Zergarako ezarritakoa izango zela erabaki zen.

Modu horretan, enpresa eta subjektu pasiboek zerga zer Zerga Administraziori ordaindu behar dioten jakiteko, irizpide berak erabil daitezke BEZan eta Sozietateen Zergan, eta horrek sinplifikatzeko aurrerapen handia ekarri zuen. Sozietateen gaineko Zergari eragin zion, funtsean, aldaketak, eta zerga horren elementu hauetan izan zuen eragina: bat-egiteen araugintza fiskala, ordainketa bateratua eta, zeharka, BEZa ordaintzeko gestio- eta ikuskaritza-prozedura eta muga kuantitatiboa.

Aldi berean, EAEn helbide fiskala duten entitate guztietara hedatu zen lurralde historikoetako erakundeen zerga-eskumena, nahiz eta entitate horiek beste Administrazio batzuei ere ordaindu. Hori hala izateko baldintza zen entitateek ez egitea haien eragiketen % 75 baino gehiago lurralde komunean; kasu horretan, arautegi arruntaren pean izango bailirateke. Horrek berariazko zerga-politika egiteko aukerak handitu zituen.

## 2.c. Modificación parcial mediante la Ley 27/1990

Esta modificación es fruto de la experiencia acumulada en la concertación del Impuesto sobre Sociedades. Se constató la existencia de dificultades para la aplicación del criterio de cifra relativa de negocios y de discordancias con el sistema establecido en el Convenio Económico entre el Estado y la Comunidad Foral Navarra. El nuevo punto de conexión adoptado fue el establecido para el Impuesto sobre el Valor Añadido.

De esta forma, para el reparto del Impuesto a una u otra Administración tributaria las empresas y sujetos pasivos pueden ajustarse a los mismos criterios en el IVA y en el Impuesto sobre Sociedades, lo que supuso un importante avance simplificador. La modificación afectó básicamente al Impuesto sobre Sociedades, incluyendo el régimen fiscal de fusiones, tributación consolidada y, colateralmente, al procedimiento de gestión e inspección y al límite cuantitativo para la exacción del IVA.

También, supuso una ampliación de la competencia normativa de las Instituciones de los Territorios Históricos a todas las entidades con domicilio fiscal en el País Vasco, con independencia de que tributen a ambas Administraciones, siempre y cuando su volumen de operaciones en territorio común no superase el 75%, en cuyo caso estarían sujetas a la normativa común. Ello elevó las posibilidades de elaborar una política tributaria propia.

## 2.d. Merkatu bakarrera eta zeharkako ezarpenaren berrikuntzara egokitzea

Barne-merkatua 1993an sortu zen eta, ondorioz, muga fiskalak ezabatu eta Europako Elkarteko kide ziren Estatu guztietan zeharkako ezarpena berritu zen. Horrek Ekonomia Ituna egokitzeko premia sorrarazi zuen.

BEZan zergapeko egitate berri bat hitzartu zen, Europar Batasunean egindako eskuraketak, lehen inportazioak zirenak, eta horiek entregatutako ondasunak eta egindako zerbitzuak bezala tratatu ziren. Kasu gehienetan, lotura-puntu horrek ez zion likidazioen emaitzak Administrazioen artean banatzeko irizpideari eragin, arau-aldaketako subjektu pasiboen gainean gutxieneko eragina lortzeko.

Aldi berean, aldaketak "eragiketen bolumen osoa" kontzeptuaren gainean xehetasun batzuk eragin zituen; kontzeptu hori 300 milioi pezetako arau sinplifikatzailea aplikatzen den ala ez zehazteko ezarri zen Itunean.

Gainera, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezi berria hitzartu zen, ibilgailuaren behin betiko matrikulazio-tokiaren arabera zehaztuz lotura-puntua, pertsonaren helbidea ere aintzat hartuz.

## 2.d. Adaptación al Mercado Único y a la reforma de la imposición indirecta

La creación del mercado interior en 1993 y, por consiguiente, la eliminación de las fronteras fiscales y la reforma de la imposición indirecta en todos los Estados miembros de la Unión Europea, obligaron a la adaptación del Concierto Económico.

En el IVA se concertó un nuevo hecho imponible, las adquisiciones intracomunitarias, antes consideradas importaciones, que pasaron a tratarse de modo similar a las entregas de bienes y prestaciones de servicios. Su punto de conexión no afectó, en el común de los casos, al criterio de reparto entre las Administraciones del resultado de las liquidaciones, a fin de conseguir el menor efecto sobre los sujetos pasivos de la modificación normativa.

Así mismo, la modificación realizó una serie de precisiones sobre el concepto "volumen total de operaciones", establecido en el Concierto para determinar si se aplica o no la regla simplificadora de los 300 millones de pesetas.

Además, se concertó el nuevo Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, concretándose su punto de conexión conforme al lugar de matriculación definitiva del vehículo, en coincidencia con el lugar en que la persona tenga su domicilio.

## 2.e. 38/1997 Legeak egokitu, aldatu eta zabaldu zuen Kontzertua

Honako zerga eta arau hauetan egin ziren aldaketan: 13/1996 Legearen arabera ezarritako Aseguru-primen gaineko Zergan; harmonizazio fiskaleko eta lankidetzako printzipioetan; egoiliarrak ez diren subjektu pasiboek lortutako etekinak kargatzen dituzten zergak ordainarazteko araudian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) aplikatu beharreko araudian eta sozietate-multzoetako zerga-araudian.

Era berean, Hidrokarburo eta Tabakoaren Zerga Bereziak biltzen zituzten zerga-monopolioak desagertu ondoren, foru-ahalmenean sartzeari ekin behar zitzaion, itun bidez. Berez, bigarren itun bat da, zerga berezien eremu espezifikoan egindakoa, eta, hala beharrez, alkoholen gaineko ezarpen bereziaren ituna agertu behar zuena.

## 2.e. Adaptación, modificación y ampliación del Concierto por la Ley 38/1997

Los cambios incorporados se debieron a la implantación del Impuesto sobre las Primas de Seguros por la Ley 13/1996, así como la introducción de modificaciones en los principios de armonización fiscal y de colaboración, en el régimen para la exacción de los tributos que gravan los rendimientos obtenidos por no residentes, en la normativa aplicable en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) y en el régimen de la tributación de los grupos de sociedades.

También, una vez desaparecidos los Monopolios Fiscales que recaudaban los Impuestos Especiales de Hidrocarburos y sobre el Tabaco, era necesario proceder a su integración en la potestad foral, mediante su concertación. Se trata, por tanto, de una segunda concertación circunscrita al ámbito específico de los Impuestos Especiales que necesariamente, también, debía contemplar la concertación de la imposición especial sobre alcoholes.

Hauek izan ziren, eskema moduan adierazita, Ekonomi Itunean sartu ziren berrikuntza nagusiak:

- Arau harmonizatzaileak. Lau arau dira, eta horietako batek dio foru-lurraldeko zerga-presio eraginkor orokorra Estatuko gainerakoaren parekoa izango dela.

- PFEZ. Foru-aldundiek, ordura arte arautzeko ahalmen murriztua zutelarik, arautzeko ia ahalmen osoa izaten hasten dira.

- Sozietateen gaineko zerga. Zerga hori dela-eta, zerga esklusiboa edo partekatua zehazteko eragiketen bolumena guztira 500 milioi pezetakoa da. Gainera, sozietate-elkarteen zerga bateratua foru-araubidearen menpe geratuko da, araudi horren pean egongo balira bai sozietate menderatzailea, bai mendean dauden sozietate guztiak.

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Sozietateen gaineko Zergaren ereduari jarraituz, 500 milioi pezetako kopurua ezartzen da zerga esklusiboa edo partekatua zehazteko.

- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga. Foru-araudia aplikatzeko 10etik 5era murrizten da EAEn bizitzeko betebeharra.

- Ondarearen gaineko zerga. Zerga hori arautzeko ahalmen osoa izatera iritsiko dira foru-aldundiak.

- Aseguru-primen gaineko Zerga. Hori hitzartzeak ahalbideratzen diete foru-aldundiei horren ordainarazpena, Estatuak une bakoitzean ezarritako edukizko eta formazko arauak aplikatuz.

- Zerga Bereziak. Zerga horiek zerga itunduak izango dira, eta foru-aldundiek eska ditzakete EAEn sortzen bada horien zorra, baina araudi erkidearen pean segituko dute.

- Jokoaren gaineko Tasa. Arautegi autonomoko zerga itundua izango da, nahiz eta egitate zergagarriarekiko eta subjektu pasiboarekiko arautegi erkidea aplikatuko den.

- Egoitza EAEn ez duten subjektu pasiboak. Foru-aldundiek bilduko dituzte haien lurraldean bizi ez diren subjektu pasiboek zerga

Las principales novedades que se introdujeron en el Concierto Económico, de forma esquemática, fueron las siguientes:

- Normas armonizadoras. Se reducen a cuatro normas, entre ellas se dice que en territorio foral se mantendrá una presión fiscal efectiva global equivalente a la del resto del Estado.

- IRPF. Las Diputaciones Forales, que hasta este momento disponían de una capacidad normativa muy limitada, pasan a tener, prácticamente, plena capacidad normativa.

- Impuesto sobre Sociedades. El volumen total de operaciones para determinar la tributación exclusiva o compartida por este Impuesto se eleva a 500 millones de pesetas. Así mismo, la tributación consolidada de los grupos de sociedades quedará sometida a normativa foral cuando la sociedad dominante y todas las sociedades dependientes estuvieran sometidas a dicha normativa.

- Impuesto sobre el Valor Añadido. Al igual que en el Impuesto sobre Sociedades se establece la cifra de 500 millones de pesetas para determinar la tributación exclusiva o compartida.

- Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones. Se reduce de 10 a 5 años la exigencia de residencia en el País Vasco para poder aplicar la normativa foral.

- Impuesto sobre el Patrimonio. Las Diputaciones Forales pasan a tener potestad normativa plena para regular este Impuesto.

- Impuesto sobre Primas de Seguros. Su concertación permite a las Diputaciones Forales su exacción, aplicando las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

- Impuestos Especiales. Estos Impuestos pasan a ser tributos concertados, exigibles por las Diputaciones Forales cuando su devengo se produzca en el País Vasco, si bien seguirán sujetos a normativa común.

- Tasa sobre el Juego. Pasa a ser un tributo concertado de normativa autónoma, aunque se aplicará la normativa común en lo relativo al hecho imponible y al sujeto pasivo.

- No residentes. Las Diputaciones Forales pasan a recaudar el IRPF, el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre el Patrimonio y

hauengatiko ordaindu beharreko dirua, PFEZ, Sozietateen Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetzen gaineko Zerga, baldin eta zerga horiek ordaintzeko obligazioa Euskadin sortu bada.

Azkenean, arautzeko ahalmena zabaltzen du EAEk honako hauetan: PFEZ, Ondarearen gaineko Zergan eta Jokoaren gaineko Tasan, eta, aldi berean, hainbat zerga gestionatzeko gaitasuna zabaltzen du, horien artean zerga bilketan duten garrantziagatik nabarmentzekoak, Zerga Bereziak (Hidrokarburoak, Tabakoa eta Alkoholak).

## 3. 2002KO EKONOMIA-ITUNA

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzekoak, ezartzen du gaur egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna.

Ekonomia Itun berriak, azken 20 urteetan jasotako eskarmentuarekin, 1981eko Itunaren printzipio, oinarri eta irizpideei segitzen die, hura aplikatzeko garaian segurtasun juridiko handiagoa lortzeko bideak sendotuz eta izaera mugagabea emanez, eta bere jarraitutasuna bermatzeko marko egonkorrean txertatzeko asmoz.

Adostutako testuak hobekuntza nabarmenak ditu eta aurreko Itunarekiko aurrerapen handia dakar, bai alderdi teknikoen ikuspegitik, bai eskumenen banaketaren ikuspuntutik, bai finantza-harremanen esparruan.

Foru-ogasunen zerga-politikako erabakiak esparru judizialean ez erabakitzeko mekanismoak lortzea izan da lehenetsitako helburua, eta, horretarako, lankidetza-prozedurak indartu dira.

Koordinaziorako eta Araua Ebaluatzeko Batzorde berriak aurreko Batzorde Koordinatzailearen lekua hartu du eta bere egin ditu 2000. urtean Kupoaren Batzorde Mistoan adostutako eginkizun ebaluatzaileak, dagozkion proiektuen arautegi eta ebaluazio-trukerako protokolo xehatua ezarriz. Horren helburua da Administrazioen artean sor gatazkarik ez sortzea.

Bestalde, Arbitraje Batzordearen osaera arintzeari ekin zitzaion; aurreko Itunak Auzitegi Goreneko magistratu bat izendatzen zuen Batzorde horretako buru, baina Batzordea ez zen sekula eratu. Egun, Batzorde horrek hiru kide izango ditu, prestigio handiko adituak zerga- eta ogasun-arloan.

el Impuesto sobre Sucesiones de los no residentes por los hechos imponibles devengados en el País Vasco.

En definitiva, el País Vasco extiende su potestad normativa en el IRPF, el Impuesto sobre el Patrimonio y la Tasa sobre el Juego y, a su vez, amplia su capacidad de gestión a varios tributos, entre los que destacan por su significación recaudatoria los Impuestos Especiales (Hidrocarburos, Tabaco y Alcoholes).

## 3. CONCIERTO ECONÓMICO DE 2002

Con la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, se establece el vigente Concierto Económico.

El nuevo Concierto, tras la experiencia acumulada en los últimos 20 años, sigue los mismos principios, bases y directrices que el Concierto de 1981, reforzándose los cauces tendentes a conseguir una mayor seguridad jurídica en su aplicación y confiriéndole un carácter indefinido, con el objeto de insertarlo en un marco estable que garantice su continuidad.

El texto acordado incorpora sustanciales mejoras y supone un avance considerable respecto al anterior Concierto, tanto en aspectos de carácter técnico como desde el punto de vista competencial, así como en el ámbito de las relaciones financieras.

La instrumentación de mecanismos que limiten la excesiva judicialización al que se han sometido las decisiones de política tributaria de las Haciendas Forales ha sido un objetivo prioritario, profundizándose en los procedimientos de colaboración.

La nueva Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa absorbe a la anterior Comisión Coordinadora y las funciones evaluadoras que fueron acordadas en Comisión Mixta de Cupo en 2000, estableciendo un protocolo detallado de intercambio normativo y de evaluación de los respectivos proyectos, orientado a propiciar que las Administraciones alcancen un acuerdo que evite un eventual conflicto judicial.

Por otra parte, se procede a la necesaria simplificación de la composición de la Junta Arbitral, cuya presidencia se atribuía por el anterior Concierto a un Magistrado del Tribunal Supremo y que nunca llegó a constituirse, ahora integrada por tres miembros designados entre expertos de reconocido prestigio en materia tributaria y

hacendística.

Ekonomia Itunak Europar Batasuneko zerga-araubidea bete zezan, eta, bereziki, ezartzeko askatasuneko oinarrizko printzipioa, konpondu egin zen EAEn bizi ez diren pertsonek lortutako errentak ordainarazteak sortzen zuen arazoa, establezimendu egonkorraren irizpideaz eta pertsona fisiko ez-egoiliarrek PFEZan ordaintzeko aukeraz baliatuta. Gainera, Ondarearen gaineko Zergak zergapetutako obligazio errealen etekinak ordainarazteko, lotura-puntu berri bat ezarri zen, aukeren erregimen ezarriz.

En cuanto al Concierto Económico y su incardinación en el contexto tributario de la Unión Europea, en particular en lo relativo al respeto del principio comunitario básico de libertad de establecimiento, se da solución a la problemática suscitada con la tributación de las rentas obtenidas por no residentes mediante establecimiento permanente y con la tributación de las personas físicas no residentes que puedan optar por la tributación en el IRPF. También, se ha establecido un nuevo punto de conexión para la exacción de los hechos imponibles sujetos al Impuesto sobre el Patrimonio por obligación real, mediante un régimen de opciones.

Euskal erakundeek bermatu egin nahi zuten beren presentzia eraginkorra nazioarteko organoetan eta bereziki Europar Batasunean (batik bat, Ekonomia Itunaren eduki eta aplikazioan eragingo duten gaiak aztertzen badira), baina ez da halakorik jaso Ekonomia Itun berrian. Hala ere, eztabaida sortu da, eta beste autonomia-erkidego batzuk ere beren eskumeneko gaiak jarri dituzte mahai gainean. Horiek horrela, erantzun egokia eman behar zaie alderdi horiei, bizi garen garaira eta Administrazioen arteko eskumen-banaketara egokitutakoa.

Si bien la pretensión de las Instituciones vascas de garantizar su presencia efectiva en los órganos internacionales, y en especial de la Unión Europea, en los que se traten materias que incidan en el contenido y aplicación del Concierto Económico no ha tenido su reflejo en la nueva redacción, sin embargo, se ha abierto un debate, al que se han unido otras Comunidades Autónomas respecto de otras materias, y al que necesariamente habrá de procurarse una respuesta adecuada, acorde con los nuevos tiempos y la realidad del reparto competencial entre Administraciones.

Itunak berak, bigarren xedapen gehigarrian, hura zerga-sistemaren aldaketetara egokitzeko kasu berriak arautzen ditu; horrela, Estatuko Administrazioak eta EAEko Administrazioek, adostasunez, Ekonomia Ituna egokituko dute, baldin eta aldaketa hauek gertatzen badira: antolamendu juridikoan berrikuntza nabarmenen bat gertatzen bada, eta berrikuntza horrek zergen itunketari eragiten badio; araugintzarako eskumenen banaketa aldatzen bada, eta aldaketak zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio; eta zerga-figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada.

En cuanto a las necesidades de adaptación del Concierto Económico, se extiende, conforme a la nueva redacción de la disposición adicional segunda, además de por la reforma en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que afectase a los tributos concertados, a los casos en que se produzca en territorio común una alteración en la distribución de competencias normativas que afectase al ámbito de la imposición indirecta, la creación de nuevas figuras tributarias e, incluso, la creación de nuevos pagos a cuenta.

Ildo horretatik, nabarmendu egin behar da Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako erabakien bidez alor horretan hartutako konpromisoa; izan ere, adostu zen Zergei buruzko Lege Orokorrak berariaz aitortuko zuela Ekonomia Itunaren izaera berezia.

En este ámbito, ha de subrayarse la asunción del compromiso contraída por la Administración del Estado, contenido en los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002, para promover un reconocimiento expreso de la especificidad del Concierto Económico en la futura Ley General Tributaria.

Konpromiso hori abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean bete zen, lege horretako 1. artikuluak arautzen baitu Lege horrek xedatutakoak ez duela bertan behera utziko Ekonomia Itunaren legeak araututakoa bete beharra.

Este compromiso se vio materializado en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, cuyo artículo 1 determina que lo establecido en dicha Ley se entiende sin perjuicio de lo dispuesto en la ley que aprueba el Concierto Económico en vigor.

Ekonomia Itun berriaren bidez lortutako akordioak handitu egin zituen lurralde historikoetako erakundeei ordura arte Itunak aitortzen zizkien zerga-ahalmenak.

Los acuerdos alcanzados con el nuevo Concierto suponen una ampliación de las capacidades tributarias reconocidas hasta ese momento por el Concierto a las Instituciones de los Territorios Históricos.

Helbide fiskalaren irizpidea baztertu eta arautze- eta ordainarazte-eskumenak egozteko eskatzen den eragiketa-bolumenaren kopuru adierazgarria 6 milioi eurotara igo du Ekonomia Itunak (lehen 500 milioi pezetakoa zen), eta horrek nabarmen igoarazi behar du zergetarako foru-jurisdikzioaren pean dauden sozietate-kopuruak, bai Sozietateen Zergan, bai Balio Erantsiaren gaineko Zergan.

Así, el aumento a 6 millones de euros (antes 500 millones de pesetas) de la cifra de volumen de operaciones relevante para atribuir las competencias normativas y de exacción sobre el criterio del domicilio fiscal, han de significar una ampliación considerable del número de sociedades sometidas a la jurisdicción tributaria foral en el Impuesto sobre Sociedades y en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Bestalde, foru-ogasunei ematen zaie erakunde autonomiadunetako eta Estatutako enpresa-entitate publikoetako funtzionario eta langileen ordainsarien atxikipenak egiteko eskumena, lehen Estatuko Administrazioari zegokiona.

Por otra parte, se asigna a las Haciendas Forales la competencia para la exacción de las retenciones de trabajo correspondientes a las retribuciones de los funcionarios y empleados de Organismos Autónomos y entidades públicas empresariales del Estado, antes atribuidas a la Administración del Estado.

Foru-ogasunei ahalmena eman zitzaien Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren zerga-tasa, gehienez, % 10 igotzeko, araudi erkidepeko autonomia-erkidegoek bete beharreko baldintza beretan. Horrekin batera, Zenbait Hidrokarbururen Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga berria itundu zen, lurraldeko oinarrizko lotura-puntua ezarriz eta zerga-tasa finkatzeko autonomia-erkidegoei utzitako balio-tartea arautzeko ahalmena emanez.

En el ámbito de la imposición indirecta, se atribuye capacidad normativa a las Haciendas Forales para elevar hasta un máximo del 10% los tipos de gravamen del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte, en iguales términos a los atribuidos a las Comunidades Autónomas de régimen común, y se ha procedido a la concertación del nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, fijando un punto de conexión de base territorial y con capacidad normativa en el llamado tramo autonómico del tipo de gravamen.

Aipatzekoa da gestio-eragozpenak izan direla, lotura-puntu berriak sortzeko zenbait zergatan; esaterako, pertsona juridikoen ibilgailuen Aseguru-Primetako Zerga ordainarazteko loturak finkatzeko edo Fabrikazio Zerga Berezien pean dauden produktu-inportazioko eragiketei aplikatu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko loturak zehazteko. Bi kasu horietan, Kupoaren Batzorde Mistoaren erabaki bidez sortutako lan-taldeek gai horiei buruz ondorioztatuko irizpideei jarraitzen zaie.

También, señalar que dificultades de gestión han impedido fijar nuevos puntos de conexión aplicables a la exacción del Impuesto sobre las Primas de Seguros en los casos de vehículos de las personas jurídicas, así como en el Impuesto sobre el Valor Añadido para la exacción de las operaciones asimiladas a la importación de los productos sujetos a los Impuestos Especiales de Fabricación, remitiéndose a las conclusiones de grupos de trabajo que se crean mediante sendos acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo.

Finantza-arloan, urratsak egin dira Ekonomia Itunaren izaera orokorra aitortzeko, eta neutraltasunari erreparatu zaio, kupoaren kopurua zehazteko.

En materia financiera, se ha avanzado en el reconocimiento del carácter general del Concierto Económico y se ha preservado la neutralidad en el nuevo señalamiento del importe del cupo.

Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunak ez zuten arautzen nola antolatu behar ziren EAEko erakundeen finantza-jarduerak, ezta erakunde horien eta Estatuko Ogasunaren arteko harremanak antolatzeko modua ere. Gainera, zalantzan jarri izan dira 1906ko abenduren 13ko Errege Dekretuko 15.

No existía referencia alguna, ni en el Estatuto de Autonomía ni en el propio Concierto Económico, al modo en que debe articularse el ejercicio global de la actividad financiera del País Vasco en sus relaciones con la Hacienda del Estado y, también, se ponía en entredicho la virtualidad en esta materia

artikuluak foru-aldundiei esleitutako ahalmenak, nahiz eta 1981eko Ituneko eta 2002ko Ituneko hirugarren xedapen gehigarriak berariaz arautzen duen horiek indarrean dirautela.

de las facultades reconocidas a las Diputaciones Forales por el artículo 15 del Real Decreto de 13 de diciembre de 1906, cuya vigencia es declarada de forma expresa por la disposición adicional tercera, tanto del Concierto de 1981 como el del 2002.

Ziurgabetasuneko egoera horri aurre egiteko, Ekonomia Ituneko II. kapituluak finantza-harremanak arautzen ditu, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak arautzeko oinarriak ezarriz. Finantza-harremanek printzipio hauek izango dituzte oinarri: autonomia, elkartasuna, koordinazioa eta lankidetza Estatuarekin aurrekontu-egonkortasun gaietan. Aldi berean, Ekonomia Ituneko Batzorde Misto berriari atxikitzen zaio gai horretan lankidetza eta koordinaziorako konpromisoak adosteko gaitasuna.

Para evitar esta situación, en el texto pactado, al Capítulo II, relativo a las relaciones financieras, se han incorporado los principios generales que deben regir estas relaciones entre el Estado y el País Vasco, basadas en los principios de autonomía, solidaridad, coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria, al mismo tiempo que se asigna a la nueva Comisión Mixta del Concierto Económico la facultad de acordar compromisos de colaboración y coordinación en esta materia.

Bestalde, Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako erabakietan, bi xedapen hauen idazketa aldatzeko konpromisoa hartu zuen Estatuko Administrazioak: batetik, Aurrekontu Egonkortasuneko Lege Orokorraren Osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoko amaierako lehen xedapena, eta, bestetik, Aurrekontu Egonkortasuneko Orokorreko abenduaren 12ko 18/2001 Legeko amaierako bigarren xedapena. Hau da azken horien idazketa berria: “Foru-erregimenak xedatutakoa betez, Lege honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzerakoan, Ekonomia Ituneko Legeak xedatutakoari erreparatuko zaio.”

Por otra parte, en los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002 se recoge el compromiso de la Administración del Estado para promover una nueva redacción de la disposición final primera de la Ley Orgánica 5/2001, de 13 de diciembre, Complementaria de la Ley General de Estabilidad Presupuestaria, así como de la disposición final segunda de la Ley 18/2001, de 12 de diciembre, General de Estabilidad Presupuestaria, con el siguiente contenido: “En virtud de su régimen foral, la aplicación a la Comunidad Autónoma del País Vasco de lo dispuesto en esta Ley, se atenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico”.

Azkenik, finantza-neutraltasunaren helburua lortu da. Ez dira aldatzen errenta egozteko indizeak eta kontsumoa eta zergak biltzeko indizeak, zeharkako zerga-egokitzapenetan aplikagarriak; ezta Fabrikazio Zerga Bereziak ituntzean ezarritako finantza-konpentsazioak ere.

Por último, el objetivo de neutralidad financiera pretendido se ha cumplido. Se mantienen en los mismos términos los índices de imputación de renta y los relativos al consumo y capacidad recaudatoria, aplicables en los ajustes a la imposición indirecta, además de las compensaciones financieras establecidas en la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación.

2002rako kupoaren kopuru finkoan sartzen dira foru-aldundiek Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga berriagatik bildutakoa eta estatuko funtzionario eta langileen atxikipenengatik bildutakoa. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusitik jasotzen ari ziren kopuruak murriztu egin dira, eta kupoaren erregimen orokorrean sartu zen osasun eta gizarte-ongizateko eskumenen eta Ertzaintzaren finantziazioa.

En la cantidad fijada como cupo para 2002 se entiende incluida la recaudación por las Diputaciones Forales del nuevo Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos y de las retenciones de funcionarios y empleados estatales antes comentada. Se reduce su importe en las cuantías que venían recibiéndose de la Tesorería General de la Seguridad Social, incorporándose al régimen general de cupo la financiación de las competencias en materia de sanidad y servicios sociales, así como la de Policía Autónoma.

Jarraian, Ekonomia Itunak itundutako zergen xedapenen berri emango da, lurralde historikoetako erakunde eskudunek haiek arautzeko eta ordainarazteko duten ahalmena eta zergen lotura-

Más adelante se repasan para cada tributo las disposiciones del Concierto Económico vigente en lo que respecta a la capacidad normativa y exaccionadora de las Instituciones competentes de

puntuak adieraziz.

los Territorios Históricos y sus puntos de conexión.

## 4. EAE-K ZERGAK ARAUTZEKO ETA ORDAINARAZTEKO DUEN GAITASUNA ETA ZERGEN LOTURA-PUNTUAK

Lurralde historikoetako erakunde eskudunen zerga-ahalmenak arautzen ditu Ekonomia Ituneko 1. artikuluak:

Zergak arautzeko ahalmena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-sistemako zergak mantendu, ezarri eta arau ditzakete.

Beraz, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zergak arautzeko ahalmena dute, eta ahalmen hori erabilita, zerga itundu bakoitzerako foru-arauak ematen dira, zerga-sistema propio bat sortuz. Hala ere, Itunak berak zerga-sistemen garapen harmonikoa bermatzen du, eta zergen artean arau-loturak egiten.

Ordainarazteko ahalmena.

Foru-aldundiei dagokie lurralde historikoetako zerga-sistemako zergen ordainarazpen-prozesua ezartzea, fase guztietan: ordainarazpena, gestioa, likidazioa, ikuskapena, berrikuspena eta diru-bilketa.

Beraz, zergak kudeatzeko autonomia osoa dute foru-aldundiek, eta kudeatzeko ahalmen hori ez da eskuordetua, berezkoa baitute. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoak hartu beharko ditu bere gain har egindako zerga-gestioaren ondorioak, bai positiboak, bai negatiboak. Hori dela-eta, Ituneko bosgarren xedapen gehigarriak arautzen du lurralde historikoek Estatuko Ogasun Publikoaren ahalmen eta eskubide berak izango dituztela itundutako zergak kudeatu, ikuskatu, berrikusi eta biltzeko.

Bestalde, honako eskumen hauek izango dira bakarrik estatuarenak: Zerga Berezien eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren barruan, inportatzeko eskubideak eta inportazio-kargak arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berraztertzea eta biltzea (5. artikulua).

Era berean, Estatuari dagokio Ekonomia Ituna betetzen den zaintzea, goi-mailako ikuskaritzaren bidez. Horretarako, eginkizun hori duten Estatuko

## 4. CAPACIDAD NORMATIVA Y EXACCIONADORA DEL PAÍS VASCO EN MATERIA TRIBUTARIA Y PUNTOS DE CONEXIÓN

En el Concierto Económico se recogen (artículo 1) las potestades tributarias de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos:

Capacidad normativa tributaria.

Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario.

Por lo tanto, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos poseen la potestad normativa en materia tributaria, dando lugar a la correspondiente normativa foral para cada tributo concertado, configurando un sistema tributario propio. Ello no es obstáculo para que el propio Concierto garantice el desarrollo armónico de los distintos sistemas tributarios con las correspondientes conexiones normativas.

Capacidad exaccionadora.

Corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales el proceso exaccionador, en todas sus fases, de los tributos que integran el sistema tributario de los Territorios Históricos: exacción, gestión, liquidación, inspección, revisión y recaudación.

Por tanto, las Diputaciones Forales disponen de plena autonomía de gestión tributaria, con potestad propia y no cedida. De ello se deriva que la Comunidad Autónoma soporte las consecuencias, positivas o negativas, de su propia gestión tributaria. En este sentido, la disposición adicional quinta del Concierto atribuye, además, a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos las mismas facultades y prerrogativas en cuanto a la gestión, inspección, revisión y recaudación de los tributos concertados que a la Hacienda Pública del Estado.

Por otra parte, constituirán competencias exclusivas del Estado la regulación, gestión, inspección, revisión y recaudación de los derechos de importación y de los gravámenes a la importación en los Impuestos Especiales y en el IVA (artículo 5).

Así mismo, corresponderá al Estado, la alta inspección de la aplicación del Concierto Económico, a cuyo efecto los órganos del Estado

organoek, urtero, betebehar horren emaitzak azaltzeko txosten bat egin behar dute, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien laguntzarekin.

encargados de la misma emitirán anualmente, con la colaboración del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales, un informe sobre los resultados de la referida aplicación.

Behin zerga-esparruan eskumenen banaketa zehaztu eta gero, Itunak harmonizaziorako arau batzuk zerrendatzen ditu eta zerga bakoitzerako lotura-puntuak zehazten ditu; lotura-puntu horiek arautzen dute Zerga-Administrazioen jarduera-esparrua hiru ikuspegi hauetatik:

Una vez determinado el reparto competencial en el ámbito tributario, el Concierto enumera una serie de necesarias normas de armonización y define los denominados puntos de conexión para cada tributo, que regulan el campo de actuación de las Administraciones tributarias desde tres vertientes:

- Arautzeko lotura-puntua. Egitate zergagarri bakoitzari aplikatu beharreko arautegia (erkidea edo forala) eta, hala balegokio, arautzeko ahalmenaren mugak.

- Ordainarazpenerako lotura-puntua. Zerga gestionatzeko ahalmena duen Zerga Administrazioa.

- Ikuskapenerako lotura-puntua.

- Punto de conexión normativo. Normativa de aplicación a cada hecho imponible (común o foral) y, en su caso, limitaciones a la capacidad normativa.

- Punto de conexión para la exacción. Administración tributaria competente para la gestión del tributo.

- Punto de conexión para la inspección.

## 4.a. Harmonizaziorako printzipio orokorrak

Lurralde historikoetako zerga-sistemak Itunean bertan zerrendatzen diren printzipio nagusiak bete beharko dira (2 artikulua): Konstituzioan zehaztutako elkartasun printzipioa, Estatuko zergen egitura orokorra kontuan izan behar da, koordinazioa, zerga-sistemen harmonizazioa eta elkarrekiko laguntza sustatu behar dira, Estatu espainiarrak izenpetuta eta berretsita dituen nazioarteko itun edo hitzarmenen menpe egotea, eta gerora beste halakoren bati atxikitzen bazaio ere.

Modu berean, Zergei buruzko Lege Orokorrean zerga-arauak ulertzeko ezarritakoaren bidetik ulertu behar dira Ekonomia itun honetako arauak. Ekonomia Itunean lurralde historikoetako zerga-sistemek kontuan hartu beharreko harmonizazio fiskalerako arauak ere definitzen dira (3. artikulua) eta lankidetza-printzipioa (4. artikulua). Norainoko desberdina dute printzipio horiek, batzuek harmonizazio-arau zehatza zehazten dute eta beste batzuek, berriz, izaera orokorreko harmonizazio-printzipioak dira. Gainera, Estatuaren eta lurralde historikoen arteko lankidetza-printzipioa arautzen da, zerga-alorreko arauzko xedapenen proiektuen berri emateko eta zergak kudeatu, ikuskatu eta biltzeko.

Harmonizazio fiskala.

Zerga-arauak sortzeko, lurralde historikoek:

## 4.a. Principios generales de armonización

El sistema tributario de los Territorios Históricos debe respetar los principios generales (artículo 2) que se enumeran en el propio Concierto: principio constitucional de solidaridad, atención a la estructura general impositiva del Estado, coordinación, armonización fiscal y colaboración mutua, así como sometimiento a los Tratados o Convenios Internacionales firmados por el Estado español o a los que éste se adhiera. Del mismo modo, las normas del Concierto se interpretarán de acuerdo con lo establecido en la Ley General Tributaria para la interpretación de las normas tributarias.

En el Concierto Económico se definen, también, las normas de armonización fiscal (artículo 3) y el principio de colaboración (artículo 4) a tener en cuenta por los sistemas tributarios de los Territorios Históricos. Estos principios tienen diferente alcance, unos determinan una norma de armonización concreta y otros invocan principios de armonización de carácter general. Además, se establece un principio de colaboración entre el Estado y los Territorios Históricos en orden a la comunicación de los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria y a la gestión, inspección y recaudación de los tributos.

Armonización fiscal.

Los Territorios Históricos en la elaboración de la

normativa tributaria:

- Terminologia eta kontzeptuak Zergei buruzko Lege Orokorraren arabera egokitu behar dituzte, Ekonomia itun honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartu behar badira ere.

- Se adecuarán a la Ley General Tributaria en cuanto a terminología y conceptos, sin perjuicio de las peculiaridades establecidas en el Concierto Económico.

- Benetako zerga-presio orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar dute.

- Mantendrán una presión fiscal efectiva global equivalente a la existente en el resto del Estado.

- Espainia osoan zehar mugitzeko eta edonon geratzeko askatasuna errespetatu eta bermatu behar dute, bai pertsonen kasuan, baita, mugitzeko askatasuna betetzeko, ondasun, kapital eta zerbitzuen kasuan ere. Ezin da, beraz, bazterketarik gertatu; ezin dira enpresen lehiatzeko aukerak murriztu; eta ezin da baliabideen esleipenean distortsiorik eragin.

- Respetarán y garantizarán la libertad de circulación y establecimiento de las personas y la libre circulación de bienes, capitales y servicios en todo el territorio español, sin que se produzcan efectos discriminatorios, ni menoscabo de las posibilidades de competencia empresarial ni distorsión en la asignación de recursos.

- Lurralde erkideko jarduera-sailkapen bera erabiliko dute abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arteetako arloetan, baina sailkapen zehatzagoak egiteko aukera izango dute.

- Utilizarán la misma clasificación de actividades ganaderas, mineras, industriales, comerciales, de servicios, profesionales y artísticas que en territorio común, sin perjuicio del mayor desglose que de las mismas pueda llevarse a cabo.

Printzipio horietako batzuk orokorrak izanda, horien aplikazioak ere orokorra izan behar du. Horiek horrela, foru-erakundeetako zerga-arauen berezitasunak printzipio orokor horien aurkakotzat jo daitezke, eta, ondorioz, arau erkideak hertsiki betetzera behartuta izan daitezke foru-erakundeak. Horrek, noski, bertan behera utziko luke Ekonomia Itunaren baliozkotasuna.

Ha de entenderse que el carácter general de algunos de estos principios exige que su aplicación práctica tenga también ese mismo carácter. De otro modo, toda disposición tributaria foral diferenciada, por pequeña que fuere esa diferencia, podría considerarse contraria a alguno de estos principios, limitando a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos a transcribir la normativa común y, por tanto, negando toda virtualidad al propio Concierto Económico.

Zerga-sistemak harmonizatzeak ez du esan nahi sistemek berdinak izan behar dutenik. Printzipio komun orokorrak onartzea eta alde bakoitzaren autonomia errespetatzea da harmonizazioa; izan ere, harmonizazioak aukera ematen du sistema fiskal bat baino gehiago izateko, jarduera ekonomikoen garapena kaltetu gabe.

La armonización de los sistemas tributarios no ha de interpretarse como sinónimo de uniformización, su significado supone aceptar unos principios comunes generales que, respetando la autonomía de cada parte, permitan la coexistencia de los sistemas fiscales, sin que ello distorsione el desarrollo de la actividad económica.

Ildo horretatik, Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an hartutako erabakiak argigarriak dira. Erabaki horiek diote lankidetza-oinarri hauek betetzen dituzten arauak izango direla harmonizazio fiskaleko printzipioetara egokitutakoak (hala ere, bete egin beharko dira Ekonomia Ituneko xedapenak):

En este sentido, pueden resultar aclaratorios los Acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 18 de enero de 2000 que establecen que, sin perjuicio de lo previsto en el Concierto Económico, se considerará adecuada a los principios de armonización fiscal la normativa que se adapte a las siguientes bases de cooperación:

- Erakunde eskudunek arautuako neurri fiskalek egokiak izan behar dute politika ekonomikoko helburuak lortzeko.

- Las medidas fiscales reguladas por las Instituciones competentes serán proporcionadas a los objetivos de política económica perseguidos en cada caso.

- Zerga-Administrazioek ez dute beste Administrazio batzuetarako kaltegarriak izan daitezkeen neurri fiskalik hartu eta proposatuko.

Lankidetza-printzipioa.

Hainbat modutan gauzatzen da Estatuaren eta lurralde historikoen arteko lankidetza; esaterako, Datuak Prozesatzeko Zentroen bidez informazioa trukatuz; helburu, sektore eta hautapen-prozesu koordinatuei buruzko ikuskaritza-plan bateratuak prestatuz; eta zerga-alorreko xedapen arautzaileen proiektuak elkarri emanez, haiek indarrean sartu baino lehen. Euskadiko erakundeek lankidetzan aritu beharko dute, halaber, Nazioarteko erabakiak betetzeko, baldin eta erabaki horiek Ekonomia Itunak arautUtako gaiak ukitzen badituzte. Lankidetza hori aurrera eramateko bitartekoak jarri beharko ditu Estatuak.

Hain justu, lankidetza-printzipio hori betetzeko eta indartzeko sortu zen 2002ko Ituneko III. kapitulua. Kapitulu horrek arautzen ditu Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoaren, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eta Arbitraje Batzordearen osaera, ahalmenak eta erabakiak hartzeko moduak. Halaber, kapituluak Kupoaren Batzorde Mistoak 1999ko uztailaren 14 hartutako erabakiak aipatzen ditu, eta hemen ere aurrerago daude aipatuta.

## 4.b. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoari lotuta dago. Lurralde-eskumena daukan foru-aldundiari dagokio zerga hori ordainaraztea, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko bizilekua Euskadin badago (6. artikulua).

Lotura-puntua, berez, subjektu pasiboaren ohiko bizilekua da, eta Itunak berak ezartzen du ohiko bizilekua Euskadin dutela pentsatzeko, ondoren aipatzen diren arauak aplikatuko dira, hurrenez hurren (43. artikulua):

- Lurralde horretan zergaren ezarraldiko egun gehien ematea, aldi batez kanpoan egon izana kontuan hartuta. Kontrako frogarik ez dagoen artean, pertsona fisiko bat Euskadiko lurraldean dagoela pentsatuko da bere ohiko etxebizitza bertan baldin badu.

- Lurralde horretan baldin badu bere eginkizunen zentro nagusia; Pertsona Fisikoen

- Las Administraciones tributarias se abstendrán de adoptar y proponer medidas fiscales potencialmente perjudiciales para las otras Administraciones.

Principio de colaboración.

La colaboración entre el Estado y los Territorios Históricos se articula a través de distintos ámbitos: intercambio de información a través de sus Centros de Proceso de Datos, preparación de planes de inspección conjuntos sobre objetivos, sectores y procedimientos selectivos coordinados e intercambio, con suficiente antelación a su entrada en vigor, de los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria. También, se prevé la colaboración de las Instituciones del País Vasco en los Acuerdos Internacionales en los aspectos que incidan en la aplicación del Concierto Económico, para lo cual el Estado arbitrará los mecanismos que lo permitan.

En el marco de este principio de colaboración y de su refuerzo han de inscribirse, también, la creación de un nuevo Capítulo III en el Concierto de 2002, en el que se desarrollan la composición, facultades y acuerdos de la Comisión Mixta del Concierto Económico, la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa y la Junta Arbitral, así como los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, que más adelante se comentan.

## 4.b. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas es un tributo concertado de normativa autónoma y su exacción corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el contribuyente tenga su residencia habitual en el País Vasco (artículo 6).

El punto de conexión es, por lo tanto, la residencia habitual del sujeto pasivo, estableciendo el propio Concierto que la residencia habitual se considerará en el País Vasco cuando así se entienda de la aplicación sucesiva de las siguientes reglas (artículo 43):

- Permanencia en dicho territorio por más días del período impositivo, computándose, a estos efectos, las ausencias temporales. Salvo prueba en contrario, se considerará que una persona física permanece en territorio vasco cuando radique en él su vivienda habitual.

- Cuando tengan en este territorio su principal centro de intereses, donde obtenga la mayor

Errentaren gaineko Zergaren ezarpen-oinarriaren zatirik handiena zein lurraldetan eskuratzen duen ikusiko da; kasu honetarako, ez dira kontuan hartuko higigarrien kapitalak emandako errentak eta ondarearen gehikuntzak, ez eta zerga-gardentasunaren araubidean -profesionala alde batera tusita-egotzitako oinarriak ere.

- Lurralde horretan baldin badu aitortutako azken bizilekua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

Familia bateko zergadunek lurralde ezberdinetan balute ohiko bizilekua eta zerga-ordainketa batera egingo balute, likidazio-oinarri handieneko familiako kidearen ohiko bizilekua duen lurraldeko Administrazioa izango da eskuduna, horrek duen araudiaren arabera kalkulatuta.

Espainiako lurraldean bizi diren pertsona fisikoen kasuan, egutegiko urtean zehar ez badute lurralde horretan 183 egun baino gehiago egiten, Euskadiko lurraldean bizi direla joko da, bertan baldin badute enpresa- edo lan-jardueren edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria.

Dena delako pertsona fisikoa Espainian bizi dela uste baldin bada, ezkontidearekin legez banandu gabe dagoelako eta ezkontideak eta haren menpe dauden adin txikiko seme-alabek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean dutelako, pertsona fisiko horrek ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean daukala joko da.

Ohiko egoitza Euskadin duten pertsona fisikoak zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da. Zergadunek zerga-egoitzaren aldaketak bi administrazioei jakinarazi behar dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Zergaren aitorpena aurkeztea nahikoa izango da jakinarazpen hori egiteko.

Bizilekua aldatzeak duen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko. Bizileku berrian jarraian emandako denbora gutxienez hiru urtez luzatzen den kasuetan izan ezik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako, aldaketarik ez dela izan pentsatuko da ondorengo inguruabarrak gertatzen badira:

- Bizilekua aldatzen den urtean edo hurrengoan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

parte de la base imponible del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, excluyéndose, a estos efectos, las rentas y ganancias patrimoniales derivados del capital mobiliario, así como las bases imputadas en el régimen de transparencia fiscal, excepto el profesional.

- Cuando sea éste el territorio de su última residencia declarada a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Cuando los contribuyentes integrados en una unidad familiar tuvieran su residencia habitual en territorios distintos y optasen por la tributación conjunta, se entenderá competente la Administración del territorio donde tenga su residencia habitual el miembro de dicha unidad con mayor base liquidable, calculada conforme a su respectiva normativa.

Las personas físicas residentes en territorio español que no permanezcan en dicho territorio más de 183 días durante el año natural, se considerarán residentes en el territorio del País Vasco, cuando en el mismo radique el núcleo principal o base de sus actividades empresariales o profesionales o de sus intereses económicos.

Cuando se presuma que una persona física es residente en el territorio español, por tener su residencia habitual en el País Vasco su cónyuge no separado legalmente y los hijos menores de edad que dependan de aquél, se considerará que tiene residencia habitual en territorio vasco.

Se entenderán domiciliados fiscalmente en el País Vasco las personas físicas que tengan en él su residencia habitual. Los contribuyentes están obligados a comunicar a ambas Administraciones los cambios de domicilio fiscal que originen modificaciones en la competencia para exigir este Impuesto. Esta comunicación se entenderá producida por la presentación de la declaración del Impuesto.

No obstante, no producirán efecto los cambios de residencia que tengan por objeto principal lograr una menor tributación efectiva. Se presumirá, salvo que la nueva residencia se prolongue de manera continuada durante, al menos, tres años, que no ha existido cambio, en relación al IRPF y el Impuesto sobre el Patrimonio, cuando concurran las siguientes circunstancias:

- Que en el año en el que se produce el cambio de residencia o en el siguiente, la base

Zergaren ezarpen-oinarria aldaketaren aurreko urtean zegoen ezarpen-oinarria baino 100eko 50 handiagoa izatea, gutxienez.

- Egoera hori sortzen den urtean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko tributazio efektiboa aldaketa izan aurreko lurraldean aplikatu beharreko araudiagatik gertatuko litzatekeen tributazio efektiboa baino txikiagoa izatea.

- Ohiko bizilekua berriz ere hasierako lurraldean edukitzea a) letran azaldutako egoera sortzen den urtearen hurrengoan, edo hurrengoaren hurrengoan.

Aldi berean, Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du.

Zergaren sorrera finkatzeko, konturako ordainketen lotura-puntuak ere zehazten ditu Itunak. Hartzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako sarrerek balioko dute, ordainketa horiek egin edo sartu diren lurraldeari begiratu gabe (12. artikulua). Hauek dira alderdi nagusiak:

<u>Laneko etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak (7. artikulua).</u>

Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubideetan hartzen diren pentsio, hartzeko pasibo eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta hartzailearen ohiko egoitza Euskadin badago.

c) Administrazio-kontseilu, ordezko batzorde eta beste ordezkaritza-organo batzuetako administratzaile eta kideen ordainsariak, ordaindu behar duen erakundearen zerga-egoitza Euskadin

imponible del IRPF sea inferior en, al menos, un 50% a la del año anterior al cambio.

- Que en el año en el cual se produzca dicha situación, la tributación efectiva por el IRPF sea inferior a la que hubiese correspondido con la normativa aplicable del territorio de residencia anterior al cambio.

- Que en el año siguiente a aquel en el que se produce la situación la letra a) o en el siguiente, vuelva a tener residencia habitual en dicho territorio.

A su vez, el cambio de domicilio del contribuyente se podrá promover por cualquiera de las Administraciones.

El Concierto determina, así mismo, los puntos de conexión de los pagos a cuenta en la fuente del Impuesto. Es preciso subrayar que éstos tienen validez a los efectos de la liquidación del Impuesto del perceptor, con independencia del territorio donde hayan sido practicados e ingresados (artículo 12). Los aspectos más significativos son:

<u>Retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del trabajo (artículo 7).</u>

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando correspondan a rendimientos procedentes de:

a) Trabajos y servicios que se presten en el País Vasco.

Cuando los trabajos o servicios se presten en ambos territorios, se presumirá, salvo prueba en contrario, que los servicios se prestan en el País Vasco, cuando en este territorio se ubique el centro de trabajo al que esté adscrito el trabajador.

b) Pensiones, haberes pasivos y prestaciones percibidas de los Regímenes Públicos de la Seguridad Social y Clases Pasivas, Instituto Nacional de Empleo, Montepíos, Mutualidades, Fondos de Promoción de Empleo, Planes de Pensiones, Entidades de Previsión Social Voluntaria, así como las prestaciones pasivas de Empresas y otras Entidades, cuando el perceptor tenga su residencia habitual en el País Vasco.

c) La condición de administradores y miembros de los Consejos de Administración, de las Juntas que hagan sus veces y de otros órganos representativos, cuando la entidad pagadora tenga

baldin badago.

Dena delako erakundeari, subjektu pasiboa den aldetik, bai Estatuak bai foru-aldundiek Sozietateen gaineko Zerga eska diezaioketenean, atxikipena bi administrazioek egin ahal izango dute, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-kopuruaren hein berean. Horretarako, Sozietateen gaineko Zergarako azken aitorpen-likidazioan adierazitako proportzio bera aplikatuko da.

Atxikipenok foru-arautegiarekin edo arautegi erkidearekin bat etorriz eskatuko dira, erakunde ordaintzaileari Sozietateen gaineko Zergari buruz aplikatzea dagokion arautegiaren arabera. Eskumena daukan administrazioko organoek egingo dute ikuskapena, irizpide beraren arabera.

Honako atxikipen hauek Estatuko Administrazioak eskatuko ditu: Estatuko funtzionarioek eta lan-legepeko nahiz administrazio-legepeko langileek jasotzen dituzten ordainsarien gainekoak, ordainsari horiek aktiboak nahiz pasiboak izan, jasotzailea ez den beste batek sortutako pentsioak barne. Erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionario eta langileei izan ezik.

<u>Konturako ordainketak Ekonomia jardueren etekinen zioz (8. artikulua).</u>

Lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiaren arabera, atxikipena edo konturako sarrera derrigorrez egin behar duenak ohiko egoitza edo zerga-egoitza Euskadin badu. Estatuko Administrazioak eta foru-aldundiek, betiere, bakoitzak berak ordaindutako etekinei dagozkien atxikipen eta konturako sarrerak eskatuko dituzte.

Atxikipen eta konturako sarrera horietan, lurralde erkidean aplikatzen dituzten tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

<u>Higigarrien kapitalak emandako etekinak direla eta, atxikipenak eta kontura egindako sarrerak (9. artikulua).</u>

Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Edozein erakunderen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak, baita obligazio eta antzeko tituluetako korrituak zein bestelako kontraprestazioak ere, etekin horiek ordaintzen dituzten erakundeek Sozietateen gaineko Zerga Euskadin bakarrik ordaintzen dutenean. Sozietateen gaineko Zergako subjektu pasiboen kasuan, zerga

su domicilio fiscal en el País Vasco.

Tratándose de sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades exigible por el Estado y las Diputaciones Forales, la retención corresponderá a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones efectuado en cada territorio, aplicándose la proporción determinada en la última declaración-liquidación.

Estas retenciones se exigirán conforme a la normativa foral o común, según normativa del Impuesto sobre Sociedades que a la entidad le resulte aplicable. La inspección se realizará por la Administración que corresponda en aplicación de este mismo criterio.

Se exigirán por la Administración del Estado las retenciones por retribuciones, tanto activas como pasivas, incluidas las pensiones generadas por persona distinta del perceptor, satisfechas por aquélla a los funcionarios y empleados en régimen de contratación laboral o administrativa del Estado, excepto los funcionarios y empleados de Organismos Autónomos y entidades públicas empresariales.

<u>Pagos a cuenta por rendimientos de actividades económicas (artículo 8).</u>

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el obligado a retener o a ingresar a cuenta tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco. En cualquier caso se exigirán por la Administración del Estado o por las respectivas Diputaciones Forales cuando correspondan a rendimientos por ellas satisfechos.

En la exacción de estas retenciones e ingresos a cuenta las Diputaciones Forales aplicarán idénticos tipos a los de territorio común.

<u>Retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del capital mobiliario (artículo 9).</u>

Se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón del territorio las correspondientes a:

a) Rendimientos obtenidos por la participación en fondos propios de cualquier entidad, así como los intereses y demás contraprestaciones de obligaciones y títulos similares, cuando tales rendimientos sean satisfechos por entidades que tributen exclusivamente por el Impuesto sobre Sociedades en territorio vasco. Tratándose de

hori bai Estatuak bai foru-aldundiek eska dezaketenean, aurreko 1 puntuko c) hizkian aurreikusitako irizpide bera aplikatuko da.

sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades exigible por el Estado y las Diputaciones Forales del País Vasco, se aplicará el mismo criterio previsto en la letra c) del punto 1 anterior.

b) Autonomia Erkidegoak, foru-aldundiek, udalek eta Euskadiko lurralde-administrazio eta erakunde-administrazioko beste izakiek jaulkitako zor eta jesapenetako korritu eta bestelako kontraprestazioak, edozein tokitan ordainduta ere. Estatuak eskatuko ditu, ordea, Estatuak berak, beste autonomia-erkidego batzuek, lurralde erkideko korporazioek eta Estatuko lurralde-administrazio eta erakunde-administrazioko bestelako izakiek egindako jaulkipenei dagozkienak, baita Euskadin ordaintzen badira ere.

b) Intereses y demás contraprestaciones de las deudas y empréstitos emitidos por la Comunidad Autónoma, las Diputaciones, Ayuntamientos y demás Entes de la Administración territorial e institucional del País Vasco, cualquiera que sea el lugar en el que se hagan efectivas. Los que correspondan a emisiones realizadas por el Estado, otras Comunidades Autónomas, Corporaciones de territorio común y demás entes de sus Administraciones territoriales e institucionales, aún cuando se satisfagan en territorio vasco, serán exigidas por el Estado.

c) Banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba eta balio bereko erakundeetako eragiketa pasiboetako korrituak eta gainerako kontraprestazioak, baita beste edozein kreditu-edo finantza-etxetan egindakoetatik lortutakoak ere, baldin eta etekinaren hartzaileak Euskadin badu ohiko egoitza edo zerga-egoitza.

c) Los intereses y demás contraprestaciones de operaciones pasivas de los Bancos, Cajas de Ahorro, Cooperativas fiscalmente protegidas y entidades equiparadas a las mismas, así como de las efectuadas en cualquier otro establecimiento de crédito o institución financiera, cuando el perceptor del rendimiento tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

d) Kapitalizazio-eragiketetatik eta bizitza edo elbarritasun-aseguruen kontratuetatik lortutako etekinak, baldin eta horien onuradunak, edo aseguru-hartzaileak, erreskatearen kasuan, Euskadin badu ohiko egoitza edo zerga-egoitza.

d) Los rendimientos derivados de operaciones de capitalización y de contratos de seguros de vida o invalidez, cuando el beneficiario o el tomador del seguro en caso de rescate, tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

e) Kapital-ezarpenetik datozen bizi arteko errentak eta aldi baterako beste batzuk ere bai, onuradunak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Euskadin baldin badauka.

e) Las rentas vitalicias y otras temporales que tengan por causa la imposición de capitales, cuando el beneficiario tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

Pentsioen kasuan, eskubidea sortu zuena ez baldin bada gaur egun pentsio hori jasotzen duena eta ordaintzen duena Estatuko Administrazioa baldin bada, atxikipena Estatuak eskatuko du.

Cuando se trate de pensiones cuyo derecho hubiese sido generado por persona distinta del perceptor y el pagador sea la Administración del Estado, la retención será exigida por ésta.

f) Jabetza intelektualetik lortutako etekinak, subjektu pasiboa egilea ez bada; eta industri jabetzatik eta laguntza teknikoa ematetik lortutakoak, ordaintzen dituen pertsona edo erakundeak zerga-egoitza Euskadin baldin badauka.

f) Los rendimientos procedentes de la propiedad intelectual, cuando el sujeto pasivo no sea el autor y, en todo caso, los de la propiedad industrial y de la prestación de asistencia técnica, cuando la persona o entidad que los satisfaga se halle domiciliada fiscalmente en el País Vasco.

g) Ondasun, eskubide, negozio, meatze eta antzekoak alokatzetik datozenak, Euskadin baldin badaude.

g) Los procedentes del arrendamiento de bienes, derechos, negocios o minas y análogos, cuando estén situados en territorio vasco.

Higiezinak hipotekatuz bermatutako maileguen korrituen kasuan, berme modura erabiltzen diren ondasunak dauden lurraldeko administrazioak izango du atxikipena eskatzeko eskumena.

Cuando se trate de intereses de préstamos garantizados con hipoteca inmobiliaria, será competente para exigir la retención la Administración del territorio donde radiquen los bienes objeto de la garantía.

Hipotekatutako ondasunak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean baldin badaude, bi administrazioei dagokie atxikipena eskatzea. Horretarako, korrituak hainbanatu egingo dira hipotekatutako ondasunen balioaren arabera, berme-asignazio berezirik ez badago behinik behin. Halakorik badago, kopuru hori erabiliko da hainbanatzeko oinarri modura.

Cuando los bienes hipotecados estuvieran situados en territorio común y vasco, corresponderá a ambas Administraciones exigir la retención, prorrateándose los intereses proporcionalmente al valor de los bienes objeto de hipoteca, salvo en el supuesto de que hubiese especial asignación de garantía, en cuyo caso será esta cifra la que sirva de base para el prorrateo.

Higigarrien hipoteka bidez edo edukitza-aldaketarik gabeko bahi bidez bermatutako maileguetako korrituen kasuan, bermea inskribatzen duten lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Cuando se trate de intereses de préstamos garantizados con hipoteca mobiliaria o prenda sin desplazamiento, la retención se exigirá por la Administración del territorio donde la garantía se inscriba.

Mailegu soilen korrituen kasuan, salerosketan ordaintzekotan utzitako prezioen kasuan eta kapitalak inon sartzeagatik lortutako beste etekin batzuen kasuan, establezimendua dagoen lurraldeko edo atxikipena egiteko betebeharra duen erakunde edo pertsonak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza duen lurraldeko administrazioak eskatuko du atxikipena.

Cuando se trate de intereses de préstamos simples, del precio aplazado en la compraventa y otros rendimientos derivados de la colocación de capitales, la retención se exigirá por la Administración del territorio donde se halle situado el establecimiento o tenga su residencia habitual o domicilio fiscal la entidad o persona obligada a retener.

Atxikipen eta konturako sarrera horietan, lurralde erkidean aplikatzen dituzten tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

En la exacción de las retenciones e ingresos a cuenta por rendimientos del capital mobiliario las Diputaciones Forales aplicarán idénticos tipos a los de territorio común.

<u>Atxikipenak eta konturako sarrerak zenbait ondare-irabaziren zioz.</u>

<u>Retenciones e ingresos a cuenta por determinadas ganancias patrimoniales.</u>

Talde-inbertsioko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean lortzen diren ondare-irabaziei dagozkien atxikipenak, akziodun edo partaidearen ohiko egoitza edo zerga-egoitza non dagoen, Estatuko Administrazioak edo lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere arautegia betez.

Las relativas a las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión o reembolso de acciones y participaciones de Instituciones de Inversión Colectiva se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón de territorio, según que el accionista o partícipe tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan emandako sariak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak (sariok ondasun, ekoizkin edo zerbitzu jakinen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon zein ez) Estatuko administrazioak edo lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, sariak ordaindu behar dituenak ohiko egoitza edo zerga-egoitza lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean duen, horren arabera. Estatuko Administrazioak eta foru-aldundiek, betiere, bakoitzak berak ordaindutako sariei dagozkien atxikipen eta konturako sarrerak eskatuko dituzte.

Las correspondientes a premios que se entreguen como consecuencia de la participación en juegos, concursos, rifas o combinaciones aleatorias, estén o no vinculados a la oferta, promoción o venta de determinados bienes, productos o servicios, se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón del territorio, según que el pagador de los mismos tenga su domicilio fiscal en territorio común o vasco. En cualquier caso, se exigirán por la Administración del Estado o por las respectivas Diputaciones Forales cuando correspondan a rendimientos por ellas satisfechos.

Atxikipen eta konturako sarrera horietan (10. artikulua), lurralde erkidean aplikatzen dituzten tasa berberak aplikatuko dituzte foru-aldundiek.

En la exacción de estas retenciones e ingresos a cuenta (artículo 10), las Diputaciones Forales aplicarán idénticos tipos a los de territorio común.

Kontura egin beharreko beste ordainketa batzuk.

Ondasun higiezinen errentamendutik eta azpierrentamendutik lortutako etekinengatik egin behar diren atxikipenak eta konturako sarrerak lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegia erabiliz, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak Euskadin badu ohiko egoitza edo zerga-egoitza.

Erakundeei ordaindutako kopuruen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, errenten egozketaren araubidearen indarrez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu beharra duten zergadunei egotzi behar zaizkienean, lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu atxikipen eta sarrera horiek, bere arautegia erabiliz, baldin eta atxikipena edo konturako sarrera egin behar duenak Euskadin badu ohiko egoitza edo zerga-egoitza.

Etekinak egozteko araubidepeko erakundeen kasuan, Sozietateen Zerga itunduko arauak bete beharko dira. Bazkideei egotzitako oinarriak ordainarazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak hartuko dira kontuan, bazkide horiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

Eratxikitako errenten kasuan, araubide horren pean diren erakundeak kudeatu eta ikuskatzea erakunde horien helbide fiskaleko administrazioari dagokio. Bazkide, erkide edo partaideei eratxikitako errenta ordainarazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak erabiliko dira, beraiek ordaindu behar duten zergaren arabera.

## 4.c. Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga da. Araudi autonomoaren pean egongo da zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan (14. artikulua).

Honako baldintza hauek betetzen dituzten entitateei aplikatuko zaie Zerga honen arautegi autonomoa:

- Zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboei, aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik beherako eragiketa-kopurua egin badute.

- Euskadin bakarrik lan egiten duten erakundeei, aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik gorako eragiketa-kopurua badute, edozein

Otros pagos a cuenta.

Las retenciones e ingresos a cuenta correspondientes a rendimientos derivados del arrendamiento y subarrendamiento de inmuebles se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación Foral competente por razón de territorio, cuando el obligado a retener o a ingresar a cuenta tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

Las retenciones e ingresos a cuenta por cantidades abonadas a entidades y que, en virtud del régimen de imputación de rentas, deban imputarse a contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se exigirán, conforme a su respectiva normativa, por la Diputación competente por razón del territorio cuando el obligado a realizar el ingreso tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

A las entidades en régimen de imputación de rentas se les aplicarán las normas previstas en la concertación del Impuesto sobre Sociedades. Para la exacción de las bases imputadas a sus socios, se tendrán en cuenta las normas del IRPF, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes o del Impuesto sobre Sociedades a que se refiere el Concierto, según el impuesto por el que tributen.

En los supuestos de atribución de rentas, la gestión e inspección de los entes sometidos a dicho régimen corresponderá a la Administración de su domicilio fiscal. Para la exacción de la renta atribuida a sus socios, comuneros o partícipes, se aplicarán las normas del IRPF, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes o del Impuesto sobre Sociedades a que se refiere el Concierto, según el impuesto por el que tributen.

## 4.c. Impuesto sobre Sociedades

El Impuesto sobre Sociedades, también, es un tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos pasivos que tengan domicilio fiscal en el País Vasco (artículo 14).

La normativa autónoma de este Impuesto se aplicará a las entidades que se encuentren en cualquiera de los siguientes supuestos:

- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior no sea superior a 6 millones de euros.

- Entidades que operen exclusivamente en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el ejercicio anterior exceda de 6 millones

izanda beraien Zerga-egoitza.

- Zerga-egoitza Euskadin duten erakundeei, aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik gorako eragiketa-kopurua izan eta eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean eginak badituzte.

Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren pean dauden gainerako erakundeak (43. artikulua), Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da. Edo, bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita egoitza non duten jakiterik ez badago, balio handieneko ibilgetua non daukaten hartuko da kontuan.

Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, Euskadin baldin badute kudeaketa eta zuzendaritza. Irizpide hori erabilita zerga-egoitza non duten jakiterik ez badago, balio handieneko ibilgetua zein lurraldetan duten hartuko da kontuan.

Zergadunek zerga-egoitzaren aldaketak bi administrazioei jakinarazi behar dizkiete, baldin eta egoitzaren aldaketak honako zerga ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar. Kontrako frogarik ez bada, pertsona juridikoen zerga-egoitza ez dela aldatu uste izango da baldin eta aldaketaren aurreko edo ondoko urtean batere jarduerarik egiten ez badute edo jarduerari uzten badiote. Aldi berean, Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du.

Bestalde, Eragiketa-kopurutzat honakoa joko da (14. artikulua): subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartzen dituen kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekargua kenduta, halakorik badago.

Aipatutako eragiketa-kopurua, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itunean aipatzen dena, bost urtean behin edo sarriago eguneratuko da (seigarren xedapen gehigarria), Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak beren beregi hartuko dituen erabakien bidez.

Balio Erantsiaren gaineko zergaren araudian hala definituta daudenak joko dira ondasunen ematetzat eta zerbitzuen prestaziotzat.

de euros, independientemente de su domicilio fiscal.

- Entidades que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco, su volumen total de operaciones exceda en el ejercicio anterior de 6 millones de euros y no realicen en Territorio Común el 75% o más del total de sus operaciones.

Se entenderán domiciliadas fiscalmente en el País Vasco las personas jurídicas y demás entidades sometidas al Impuesto sobre Sociedades (artículo 43) que tengan en el País Vasco su domicilio social, siempre que en el mismo esté efectivamente centralizada su gestión administrativa y la dirección de sus negocios. En otro caso, cuando se realice en el País Vasco dicha gestión o dirección. En los supuestos en que no pueda establecerse el lugar del domicilio de acuerdo con estos criterios, se atenderá al lugar donde radique el mayor valor de su inmovilizado.

Del mismo modo, los entes sin personalidad jurídica, cuando su gestión y dirección se efectúe en el País Vasco. Si con este criterio fuese imposible determinar su domicilio fiscal, se atenderá al territorio donde radique el mayor valor de su inmovilizado.

Los sujetos pasivos del Impuesto vendrán obligados a comunicar a ambas Administraciones los cambios de domicilio fiscal que originen modificaciones en la competencia para exigir este impuesto. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que no se ha producido cambio de domicilio fiscal de las personas jurídicas, cuando en el año anterior o siguiente a dicho cambio devengan inactivas o cesen en su actividad. A su vez, el cambio de domicilio del contribuyente se podrá promover por cualquiera de las Administraciones.

Por otra parte, se entenderá por volumen de operaciones (artículo 14) el importe total de las contraprestaciones, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el recargo de equivalencia, en su caso, obtenido en un ejercicio por el sujeto pasivo en las entregas de bienes y prestaciones de servicios realizadas en su actividad.

La cifra del volumen de operaciones señalada, y a la que también se refiere la concertación del Impuesto sobre el Valor Añadido será actualizada (disposición adicional sexta), por acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, al menos cada 5 años.

Tendrán la consideración de entregas de bienes y prestaciones de servicios, las operaciones definidas como tales en la normativa del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, goiko Bat idatz-zatian aipatu den eragiketa-kopurua kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatuko da dena delako eragiketa-kopurutik abiatuta. Jarduera hasi berria denean, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen kopuruari begiratuko zaio, eta lehenengo ekitaldia urtebete baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokiona kalkulatuko da dena delako eragiketa-kopurutik abiatuta. Harik eta ekitaldi horretako eragiketak zenbat izan diren eta non egin diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondore guztietarako, subjektu pasiboak aurrez kalkulatzen dituenak, jardueraren hasierako ekitaldian ustez egingo dituen eragiketen arabera.

Si el ejercicio anterior fuese inferior a un año, el volumen de operaciones será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas. En caso de inicio de la actividad se atenderá al volumen de las operaciones realizadas en el primer ejercicio, y si éste fuese inferior a un año, será el resultado de elevar al año las operaciones realizadas durante el ejercicio. Hasta que se conozcan el volumen y el lugar de realización de las operaciones en este ejercicio, se tomarán como tales, a todos los efectos, los que el sujeto pasivo estime en función de las operaciones que prevea realizar durante el ejercicio de inicio de la actividad.

Eragiketak egiteko tokia erabakitzerakoan, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira (16. artikulua):

En lo que respecta a la determinación del lugar de realización de las operaciones (artículo 16), se entenderán realizadas en el País Vasco las siguientes:

a) Ondasun-ematea:

a) Entregas de bienes:

Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela uste izango da.

Las entregas de bienes muebles corporales cuando se realice desde territorio vasco la puesta a disposición del adquirente. Cuando los bienes deban ser objeto de transporte para su puesta a disposición del adquirente, las entregas se entenderán realizadas en el lugar en que se encuentren aquéllos al iniciarse la expedición o el transporte.

Ematen dituenak berak eraldatu baditu ondasunak, ematea Euskadiko lurraldean egin dela uste izango da baldin eta eraldatzeko azken prozesua lurralde horretan egina bada

Si se trata de bienes transformados por quien realiza la entrega, se entenderá efectuada en territorio vasco si se realizó en dicho territorio el último proceso de transformación.

Emate horiek direla-eta Euskaditik kanpora industri arloko elementuren batzuk instalatu behar badira, emateak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira baldin eta gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egiten badira eta instalatu edo muntatzeko kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada

Si se trata de entregas con instalación de elementos industriales fuera del País Vasco, se entenderán realizadas en territorio vasco si los trabajos de preparación y fabricación se efectúan en dicho territorio y el coste de la instalación o montaje no excede del 15% del total de la contraprestación.

Energia elektrikoa ekoizten dutenek egindako emateak, energia hori sortzen duten zentroak Euskadiko lurraldean baldin badira.

Las entregas realizadas por los productores de energía eléctrica, cuando radiquen en territorio vasco los centros generadores de la misma.

Ondasun higiezinen emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean baldin badaude.

Las entregas de bienes inmuebles, cuando los bienes estén situados en territorio vasco.

b) Zerbitzuak ematea:

b) Prestaciones de servicios:

Zerbitzuak Euskadiko lurraldean emandakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira.

Las prestaciones de servicios se entenderán realizadas en territorio vasco, cuando se efectúen desde dicho territorio.

Ondasun higiezinekin zerikusi zuzena duten zerbitzuak Euskadin kokatuta baldin badaude

Cuando las prestaciones estuvieran directamente relacionadas con bienes inmuebles, se entenderán realizadas en el País Vasco si dichos bienes radican

hartuko dira, zerbitzu horiek, Euskadin egindakotzat.

Aseguru-eragiketak eta kapitalizazio-eragiketak, era berean, aurreko idatz-zatietan xedatutakotik kanpora daude. Halako kasuetan, 32. artikuluan jasotako arauak bete beharko dira

c) Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak zerga-egoitza Euskadiko lurraldean baldin badauka, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek edo arrantzuntzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

Modu berean, garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

d) Artikulu honetan zehaztutako irizpideen arabera atzerrian egindakotzat hartzen diren eragiketak administrazio bati edo besteari eratxikiko zaizkio, gainerako eragiketetan erabiltzen den proportzio berberarekin.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren arabera jasotako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek, zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, zergak foru-aldundiei ordainduko dizkiete

Zerga honetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan bezala, zehazten da ordainarazpenerako lotura-puntuak (15. artikulua), egitate zergagarriak bi lurraldeetan sor ditzaketelako subjektu pasiboek, eta ondorioz, Administrazio arteko Zergaren likidaziotik ateratakoa banatzea dakar.

Foru-aldundiei dagokie, soil-soilik, zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboei Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea, baldin eta horiek aurreko ekitaldian eginak dituzten eragiketen kopurua 6 milioi eurokoa edo txikiagoa bada.

Aurreko ekitaldian egindako eragiketen kopurua 6 milioi euro baino handiagoa bada, subjektu pasiboek, zerga-egoitza edonon dutela ere, foru-aldundiei, Estatuko Administrazioei edo bi administrazio horiei ordainduko diete zerga, egindako eragiketen kopuruaren heinean. Proportzioa ehunekotan emango da, bi hamartarrekin biribilduta.

en territorio vasco.

Asimismo, se exceptúan de lo dispuesto en los dos párrafos anteriores las operaciones de seguro y capitalización, respecto de las cuales se aplicarán las reglas contenidas en el artículo 32.

c) Se entenderán realizadas en el País Vasco las operaciones, cuando el sujeto pasivo que las realice tenga su domicilio fiscal en territorio vasco en los casos de entregas realizadas por explotaciones agrícolas, forestales, ganaderas o pesqueras y armadores de buques de pesca de productos naturales no sometidos a procesos de transformación que procedan directamente de sus cultivos, explotaciones o capturas.

Del mismo modo, para los servicios de transporte, incluso de mudanza, remolque y grúa, así como, los arrendamientos de medios de transporte.

d) Las operaciones que con arreglo a los criterios establecidos se consideren realizadas en el extranjero se atribuirán, en su caso, a una u otra Administración en igual proporción que el resto de las operaciones.

e) Las entidades que no realicen las operaciones definidas conforme a la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido tributarán a las Diputaciones Forales del País Vasco cuando tengan su domicilio fiscal en territorio vasco.

En este Impuesto, como en el Impuesto sobre el Valor Añadido, se especifica, también, el punto de conexión a los efectos de su exacción (artículo 15), debido a que los sujetos pasivos pueden generar hechos imponibles en ambos territorios, lo que motiva que se produzca un reparto del resultado de la liquidación del Impuesto entre Administraciones.

Así, corresponderá de forma exclusiva a las Diputaciones Forales la exacción del Impuesto sobre Sociedades de los sujetos pasivos que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen de operaciones en el ejercicio anterior no hubiere excedido de 6 millones de euros.

Los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiere excedido de 6 millones de euros tributarán, cualquiera que sea el lugar en que tengan su domicilio fiscal, a las Diputaciones Forales del País Vasco, a la Administración del Estado o a ambas Administraciones en proporción al volumen de operaciones. Éste se expresará en porcentaje y redondeado con dos decimales.

Zergaren ikuskapenaren gainean (19. artikulua), lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak egingo du, subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen kopurua 6 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago araubide erkideko lurraldean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen kopurua 6 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak foru-lurraldean eginak badira.

Modu horretan, Sozietateen Zergan aplikatu beharreko lotura-puntuak definitzen dira. Horrela, eragiketa-bolumenak eta zerga-egoitzak zehaztuko dute aplikatu beharreko zerga-araudia eta zer Administraziok ordainaraziko eta ikuskatuko duen hura.

En cuanto a la inspección del Impuesto (artículo 19), ésta se realizará por la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el sujeto pasivo tenga su domicilio fiscal en el País Vasco.

No obstante, la inspección de los sujetos pasivos cuyo volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 6 millones de euros y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio de régimen común el 75% o más de su volumen de operaciones corresponderá a la Administración del Estado.

Asimismo, la inspección de los sujetos pasivos cuyo domicilio fiscal radique en territorio de régimen común, su volumen de operaciones en el ejercicio anterior hubiera excedido de 6 millones de euros y hubiera realizado la totalidad de sus operaciones en territorio foral, se realizará por la Diputación Foral competente por razón del territorio.

De esta forma, quedan definidos los puntos de conexión a aplicar en el Impuesto sobre Sociedades, para los que el domicilio fiscal y el volumen de operaciones determinan la normativa del Impuesto a aplicar y la Administración o Administraciones competentes para su exacción, así como aquélla a la que se le atribuye la capacidad de inspección.

| **SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA** / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES<br>**ARAU, ORDAINARAZPEN ETA IKUSKATZE-AHALMENA BANATZEKO IRIZPIDEAK**<br>**FORU ADMINISTRAZIOEN ETA ESTATUAREN ARTEAN**<br>CRITERIO DE REPARTO DE LA CAPACIDAD NORMATIVA, EXACCIONADORA Y DE INSPECCIÓN<br>ENTRE LAS ADMINISTRACIONES FORALES Y LA DEL ESTADO | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **IZAN LITEZKEEN HIPOTESIAK** / SUPUESTOS POSIBLES | | | **AHALMENA** / CAPACIDAD | | |
| **ZERGA-EGOITZA**<br>DOMICILIO FISCAL | **ERAGIKETEN ZENBATEKOA**<br>VOLUMEN DE OPERACIONES | **% EAEko ERAGIK. ZENBATEKOA**<br>% VOLUMEN OPERACIONES CAE | **ARAUTZEKOA**<br>NORMATIVA | **ORDAINARAZTEKOA**<br>DE EXACCIÓN | **IKUSKATZEKOA**<br>DE INSPECCIÓN |
| **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **<= 6 milioi euro**<br><= 6 mill. euros | ---- | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN |
| **ARABA** / ÁLAVA | **<= 6 milioi euro**<br><= 6 mill. euros | ---- | **ARABA** / ÁLAVA | **ARABA** / ÁLAVA | **ARABA** / ÁLAVA |
| **BIZKAIA** | **<= 6 milioi euro**<br><= 6 mill. euros | ---- | **BIZKAIA** | **BIZKAIA** | **BIZKAIA** |
| **GIPUZKOA** | **<= 6 milioi euro**<br><= 6 mill. euros | ---- | **GIPUZKOA** | **GIPUZKOA** | **GIPUZKOA** |
| **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | <100% | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN |
| | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | 100% | **LE > erag. zenb.**<br>T.H. > volum. operac. | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **LE > erag. zenb.**<br>T.H. > volum. operac. |
| **ARABA** / ÁLAVA | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | >25% | **ARABA** / ÁLAVA (1) | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **ARABA** / ÁLAVA |
| | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | <=25% | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN |
| **BIZKAIA** | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | >25% | **BIZKAIA** (1) | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **BIZKAIA** |
| | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | <=25% | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN |
| **GIPUZKOA** | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | >25% | **GIPUZKOA** (1) | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **GIPUZKOA** |
| | **> milioi euro**<br>> 6 mill. euros | <=25% | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN | **Eragiketa-kopur. prop.**<br>Proporc. vol. operac. | **LURRALDE ERKIDEA**<br>TERRITORIO COMÚN |

**(1) Sozietate batek eragiketen zenbatekoaren %100a Lurralde Historiko bakar batean egiten badu Lurralde horren araudia baizik ez zaio ezarriko nahiz eta Sozietateak bere zerga-egoitza beste Lurralde batean izan.**

(1) En el caso de que el 100% del volumen de operaciones se hubiera realizado en un sólo Territorio Histórico, se aplicará la normativa correspondiente a dicho territorio, con independencia del territorio donde tenga la Sociedad su domicilio fiscal.

**KOADROA** / CUADRO I.1

Sozietateen gaineko Zerga (17. artikulua) dela-eta egin beharreko atxikipenak eta konturako ordainketak administrazio bati ala besteari egingo zaizkio, Itunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz ezarritako irizpideen arabera.

Zergak bi Administrazioei ordaindu behar dizkieten subjektu pasiboek, bestalde, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren arabera sartuko dute zergaren ordainketa zatikatua, eta zergaren azken aitorpen-likidazioan zehaztutako proportzioa aplikatuko zaie. Dena dela, bategite, zatitze eta aktibo-ekarpenen kasuan, beste proportzio bat aplikatu ahal izango da, bai eta lurralde erkidean edo foralean jarduera hastean, etetean, zabaltzean edo murriztean ere, baldin eta aldakuntza adierazgarria badakar (ehuneko 15 puntu edo gehiagoko aldaketa lurraldeetako edozeini aplikatzeko moduko proportzioan) irizpide

Las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre Sociedades (artículo 17) corresponderán a una u otra Administración conforme a los criterios establecidos a tal efecto en el Concierto para el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Los sujetos pasivos que deban tributar a ambas Administraciones ingresarán el pago fraccionado del Impuesto en proporción al volumen de operaciones realizado en cada territorio, aplicándose la proporción determinada en la última declaración-liquidación del Impuesto. Podrá aplicarse una proporción diferente en los casos de fusión, escisión y aportación de activos, así como de inicio, cese, ampliación o reducción de actividad en territorio común o foral que implique una variación significativa (alteración de 15 o más puntos porcentuales en proporción aplicable a cualquiera de los territorios) de la proporción calculada según

orokorraren arabera kalkulatutako proportzioan.

el criterio general.

Euskadik ezarriko du interes ekonomikoko elkartzeen eta enpresen aldi baterako batasunen zerga-araubidea (20. artikulua), halakoak osatzen dituzten erakunde guztiak foru-arautegiaren menpe dauden kasuetan.

Por otra parte, el régimen tributario de las agrupaciones de interés económico y uniones temporales de empresas (artículo 20), corresponderá al País Vasco cuando la totalidad de las entidades que las integren estén sujetas a normativa foral.

Erakundeok bazkideei egotziko diete lurralde batean zein bestean egindako eragiketetan dagokien zatia, eta bazkideek kontuan hartuko dute egotzi zaien zati hori, euren eragiketen proportzioa zehazterakoan.

Estas entidades imputarán a sus socios la parte correspondiente del importe de las operaciones realizadas en uno y otro territorio, que será tenida en cuenta por éstos para determinar la proporción de sus operaciones.

Ekonomia Ituna indarrean jarri aurretik eratutako ekonomia-intereseko elkartzeei eta enpresen aldi baterako batasunei aplikatu beharreko zerga-araubidea Euskadiri dagokiona bera izango da, baldin eta elkartze eta batasun horiek Euskadiko lurralde-eremua gainditzen ez badute (bosgarren xedapen iragankorra).

El régimen tributario aplicable a las agrupaciones de interés económico y las uniones temporales de empresas constituidas con anterioridad a la entrada en vigor del Concierto Económico (disposición transitoria quinta) será el correspondiente al País Vasco cuando no superen su ámbito territorial.

Zerga-taldeak zerga-baterakuntzaren foru-araubidearen menpe egongo dira baldin eta sozietate edo establezimendu iraunkor nagusia eta menpeko guztiak foru-arautegiaren menpe badaude banako zerga-ordainketaren araubidean, eta lurralde erkideko zerga-baterakuntzaren araubidearen menpe egongo dira, aldiz, sozietate nagusia eta menpeko guztiak lurralde erkideko zerga-araubidearen menpe badaude banako zerga-ordainketaren araubidean (20. artikulua).

Y por lo que respecta a los grupos fiscales (artículo 20) estarán sometidos al régimen de consolidación fiscal foral, cuando la sociedad dominante y todas las dependientes estuvieran sujetas a normativa foral en tributación individual, y estarán sujetos al régimen de consolidación fiscal de territorio común, cuando la sociedad dominante y todas las dependientes estuvieran sujetas a normativa común en régimen de tributación individual.

Hori dela eta, zerga-taldetik kanpokotzat joko dira beste araubidearen menpe dauden sozietateak, halakorik badago. Estatuaren unean uneko arautegia bera erabiliko da, betiere, zerga-taldea, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, nagusitasun gradua eta taldearen barne-eragiketak definitzeko.

A estos efectos, se considerarán excluidas del grupo fiscal las sociedades que estuvieran sujetas a la otra normativa. En todo caso, se aplicará idéntica normativa a la establecida en cada momento por el Estado para la definición de grupo fiscal, sociedad dominante, sociedades dependientes, grado de dominio y operaciones internas del grupo.

Arau hauek erabiliko dira zerga-taldeei zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzeko:

Para la aplicación del régimen de tributación consolidación fiscal de los grupos de fiscales se seguirán las reglas siguientes:

- Taldea osatzen duten sozietateek, Itun honetan aipatutako arau orokorrak betez, banako zerga-ordainketaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute. Aurreko lerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, sozietate nagusiak zerga-taldearen kontabilitate-orri bateratuak aurkeztuko dizkie administrazio biei.

- Las sociedades integrantes del grupo presentarán, de conformidad con las normas generales del Concierto, la declaración establecida para el régimen de tributación individual, sin perjuicio de que la sociedad dominante presentará a cada una de las Administraciones los estados contables consolidados del grupo fiscal.

- Zerga-taldeak lurraldeetako bakoitzean eginak dituen eragiketen kopuruaren heinean ordainduko dio zerga-administrazioetako bakoitzari. Hori dela eta, lurralde bakoitzean

- El grupo fiscal tributará a una y otra Administración en función del volumen de operaciones realizado en uno y otro territorio. A estos efectos, el volumen de operaciones

egindako eragiketen kopurua kalkulatzeko, zerga-taldeko sozietateek lurralde horretan egindako eragiketak batu egingo dira, eta gero taldearteko bidezko kenketak egingo dira

realizado en cada territorio estará constituido por la suma o agregación de las operaciones que cada una de las sociedades integrantes del grupo fiscal efectúen en el mismo, antes de las eliminaciones intergrupo que procedan.

Zerga-taldeek, baldin eta 2002ko urtarrilaren bata baino lehen zerga-baterakuntzako araubidean eta arautegi erkidearen edo foru-arautegiaren arabera ordaintzen bazuten zerga (Seigarren xedapen iragankorra), zerga-ordainketaren araubide horri eutsi ahal izango diote 2006ko abenduaren 31 arte, maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 25. artikuluan xedatutakoa dela bide. Betiere, artikulu hori beraiei aplikatu ahal izateko, zerga-baterakuntzaren alorrean 2001eko abenduaren 31n indarrean zegoen arautegian ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Los grupos fiscales que con anterioridad a 1 de enero de 2002 estuvieran tributando con normativa común o foral en régimen de consolidación fiscal (disposición transitoria sexta), por aplicación de lo dispuesto en el artículo 25 del Concierto Económico aprobado por la Ley 12/1981, de 13 de mayo, podrán mantener dicho régimen de tributación hasta el 31 de diciembre de 2006, siempre que cumplan los requisitos previstos para su aplicación en la normativa sobre consolidación fiscal vigente a 31 de diciembre de 2001.

Enpresak batzeko eta zatitzeko eragiketetan, Sozietateen Zergan (14. artikulua) aipatzen diren zerga-irizpideei jarraituta, kasuan kasuko zerga-onurak bi administrazioek onetsi behar baldin badituzte, foru-aldundiek aplikatuko duten araudia une bakoitzean lurralde erkidean indarrean egongo denaren berdina izango da, eta kasuan kasuko administrazio-espedienteak izapidetuko dira administrazio bakoitzean (47. artikulua).

En otro orden de cosas, en las operaciones de fusiones y escisiones de empresas en las que los beneficios tributarios, que en su caso procedan, hayan de ser reconocidos por ambas Administraciones, conforme a los criterios de tributación contenidos en la concertación del Impuesto sobre Sociedades (artículo 14), las Diputaciones Forales aplicarán idéntica normativa que la vigente en cada momento en territorio común, tramitándose los correspondientes expedientes ante cada una de las Administraciones (artículo 47).

## 4.d. Ez-egoiliarren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berak erabiliko dira hura eraentzeko (21. artikulua).

Hala ere, atzerriko egoiliarrak diren pertsona edo erakundeek Euskadin dituzten establezimendu iraunkorrei zerga honi buruzko arautegi autonomoa aplikatuko zaie, araudiko lotura-puntuaren arabera.

Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, administrazioetako batek ordainaraziko du Zerga, edo bestela biek batera, Sozietateen Zergan ordainarazteko lotura-puntuan adierazitako eran (22. artikulua).

Konturako ordainketak direla eta (23. artikulua), establezimendu iraunkorrek euren errenten zioz egin behar dituzten zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako sarrerak PFEZan eta Sozietateen Zergan ezarritako arauei jarraituz eskatuko dira.

## 4.d. Impuesto sobre la Renta de no Residentes

El Impuesto sobre la Renta de no Residentes es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 21).

No obstante, a los establecimientos permanentes domiciliados en el País Vasco de entidades residentes en el extranjero les será de aplicación la normativa autónoma del Impuesto sobre Sociedades, conforme a su punto de conexión normativo.

Del mismo modo, cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, la exacción del Impuesto corresponderá a una u otra Administración o a ambas conjuntamente, en los términos previstos en el punto de conexión para la exacción en el Impuesto sobre Sociedades (artículo 22).

Los pagos fraccionados (artículo 23) que realicen los establecimientos permanentes y las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto que se les practiquen por las rentas que perciban, se exigirán de acuerdo con las reglas establecidas para el IRPF

y el Impuesto sobre Sociedades.

Hori dela eta, establezimendu iraunkorrak Euskadin helbideratuta jotzeko, euskal lurraldean egin beharko dute negozioen gestio administratibo edo zuzendaritza. Irizpide horiek erabilita egoitza non duten jakiterik ez badago, balio handieneko ibilgetua non daukaten hartuko da kontuan (43. artikulua).

A estos efectos, los establecimientos permanentes se entenderán domiciliados en el País Vasco cuando su gestión administrativa o la dirección de sus negocios se efectúe en territorio vasco. En los casos en que no pueda establecerse el lugar del domicilio de acuerdo con estos criterios, se atenderá al lugar donde radique el mayor valor de su inmovilizado (artículo 43).

Zergadunak, aukerazko araubidea aplikatu ahal izateko Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian araututako baldintzak beteta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzea aukeratzen badu, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiaren arautegia aplikatuko da, baldin eta zergadunak lanetik eta ekonomia-jardueretatik euskal lurraldean lortzen dituen etekinek Espainian lortzen duen errenta osoaren zatirik handiena egiten badute. Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, foru-aldundi eskudunak egingo dio itzulketa, berdin da errentak Espainiako zein lekutan lortu dituen.

Cuando el contribuyente ejercite la opción de tributación por el IRPF por cumplir los requisitos previstos en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, a efectos de la aplicación del régimen opcional, será tenida en cuenta la normativa de la Diputación Foral competente por razón territorio, siempre y cuando los rendimientos del trabajo y de actividades económicas obtenidos en territorio vasco representen la mayor parte de la totalidad de renta obtenida en España. En el caso de que el contribuyente tenga derecho a la devolución, ésta será satisfecha por dicha Diputación Foral con independencia del lugar de obtención de las rentas dentro del territorio español.

Pertsona fisiko edo erakunde batek establezimendu iraunkorraren bidez diharduela uste izango da baldin eta, edozein titulu dela bide, edozein motatako instalazio edo lantokiren bat badu, ohikoa eta iraunkorra, eta bere jarduera bertan egiten badu osorik nahiz zati batean; edo bestela, subjektu pasibo ez-egoiliar horren izenean eta kontura agenteren batek egiten badu jarduera, kontratuak barne, subjektu pasiboak eskuetsita, eta agente horrek ohikoa badu subjektu pasibo ez-egoiliarrak emandako ahalmen hori erabiltzea.

Se entenderá que una persona física o una entidad opera mediante establecimiento permanente, cuando por cualquier título disponga, de forma continuada o habitual, de instalaciones o lugares de trabajo de cualquier índole, en los que se realice toda o parte de su actividad, o actúe en él por medio de un agente autorizado para contratar, en nombre y por cuenta del sujeto pasivo no residente, que ejerza con habitualidad dichos poderes.

Establezimendu iraunkortzat joko dira, bereziki, zuzendaritzen egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, lantegiak, tailerrak, biltegiak, dendak eta bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio eta gas guneak, harrobiak, nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzako ustiategiak eta baliabide naturalak ustiatu edo ateratzeko beste edozein gune, eta hamabi hilabete baino gehiago dirauten eraikuntza, instalazio edo muntatze obrak.

En particular, se entenderá que constituyen establecimiento permanente las sedes de dirección, las sucursales, las oficinas, las fábricas, los talleres, los almacenes, tiendas u otros establecimientos, las minas, los pozos de petróleo o de gas, las canteras, las explotaciones agrícolas, forestales o pecuarias o cualquier otro lugar de exploración o de extracción de recursos naturales, y las obras de construcción, instalación o montaje cuya duración exceda de 12 meses.

Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du zerga, errentak Euskadin lortuak edo sortuak badira, hau da, ondoko baldintzak betetzen badira:

Por otra parte, cuando se graven rentas obtenidas sin mediación de establecimiento permanente, la exacción del Impuesto corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando las rentas se entiendan obtenidas o producidas en el País Vasco por aplicación de los siguientes criterios:

a) Ekonomia ustiategien etekinak direnean,

a) Los rendimientos de explotaciones económicas, cuando las actividades se realicen en territorio

jarduerak Euskadiko lurraldean egiten badira.

b) Azterketa, egitasmo, laguntza tekniko, kudeaketarako laguntza, zerbitzu profesional eta antzeko beste zerbitzu batzuetatik lortutako etekinak direnean, zerbitzu horiek Euskadin egin edo erabiltzen badira.

Eta Euskadi barruan erabilitako zerbitzuak hauek izango dira: Euskadi barruan gauzatzen diren enpresa-jarduereetan edo jarduera profesionaletan erabilitakoak edo lurralde horretan kokatutako ondasunekin burututakoak. Zerbitzu hori ez baldin bada burutzen den tokian bertan erabiltzen, non erabiltzen den hartuko da kontuan.

c) Menpeko lanak ematen dituen etekinak direnean, lan hori Euskadi barruan egiten bada.

d) Artista edo kirolariek Euskadi barruan egindako lanaldi pertsonaletatik edo lanaldi horiekin zerikusia duen beste edozein jardueratatik ateratako etekinak, nahiz eta, artistak edo kirolariak berak hartu ordez, beste pertsona edo erakunderen batek hartu.

e) Euskal erakunde publikoetako fondo propioetan parte hartzetik ateratako dibidenduak zein bestelako etekinak.

f) Kapital higigarriak emandako korritu, kanon eta bestelako etekinak:

- Ohiko egoitza Euskadin duten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindutakoak.
- Euskadi barruan erabilitako kapital-prestazioak ordaintzeko sariak direnean.

Irizpide horiek ez baldin badatoz bat, kapitala (ordaindutako prestaziokoa) non erabili den hartuko da kontuan.

g) Euskadiko lurraldearen barruan dauden ondasun higiezinetatik edo ondasun horiekin zerikusia duten eskubideetatik zuzenean nahiz zeharka ateratako etekinak.

h) Euskadiko lurraldean kokatutako hiri ondasun higiezinen titularrak diren pertsona fisiko zergadunei egozten zaizkien errentak.

i) Ondare-gehikuntzak, pertsonek edo euskal erakunde publikoek jaulkitako baloreen ondorioz gertatzen direnean.

j) Ondare-gehikuntzak, Euskadiko lurralde barruan dauden ondasun higiezinen ondorioz gertatzen

vasco.

b) Los rendimientos derivados de prestaciones de servicios tales como, la realización de estudios, proyectos, asistencia técnica, apoyo a la gestión, así como de servicios profesionales, cuando la prestación se realice o se utilice en territorio vasco.

Se entenderán utilizadas en territorio vasco las prestaciones que sirvan a actividades empresariales o profesionales realizadas en territorio vasco o se refieran a bienes situados en el mismo. Se atenderá al lugar de la utilización del servicio cuando éste no coincida con el de su realización.

c) Los rendimientos que deriven, directa o indirectamente, del trabajo dependiente cuando el trabajo se preste en territorio vasco.

d) Los rendimientos derivados, directa o indirectamente, de la actuación personal en territorio vasco de artistas o deportistas, o de cualquier otra actividad relacionada con dicha actuación, aún cuando se perciban por persona o entidad distinta del artista o deportista.

e) Los dividendos y otros rendimientos derivados de la participación en fondos propios de entidades públicas vascas.

f) Los intereses, cánones y otros rendimientos del capital mobiliario:

- Satisfechos por personas físicas con residencia habitual en el País Vasco o entidades públicas vascas.
- Cuando retribuyan prestaciones de capital utilizadas en territorio vasco.

Cuando estos criterios no coincidan se atenderá al lugar de utilización del capital cuya prestación se retribuye.

g) Los rendimientos derivados, directa o indirectamente, de bienes inmuebles situados en territorio vasco o de derechos relativos a los mismos.

h) Las rentas imputadas a los contribuyentes personas físicas titulares de bienes inmuebles urbanos situados en territorio vasco.

i) Las ganancias patrimoniales derivadas de valores emitidos por personas o entidades públicas vascas.

j) Las ganancias patrimoniales derivadas de bienes inmuebles situados en territorio vasco o de

badira edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideen ondorioz gertatzen badira. Zehatz-mehatz, letra honen barruan egongo dira:

- Erakunde bateko eskubide edo partaidetzak direla-eta ondareetan gertatutako gehikuntzak, baldin eta erakunde horren aktiboa Euskadiko lurraldean kokatutako ondasun higiezinez osatuta badago batez ere.

- Erakunde bateko eskubide edo partaidetzak eskualdatu egin direla-eta ondareetan gertatuko gehikuntzak, baldin eta eskubide edo partaidetza horiek Euskadiko lurralde barruan kokatuta dauden ondasun higiezinez gozatzeko eskubidea ematen badiote titularrari.

k) Ondare-gehikuntzak, Euskadiko lurralde barruan kokatutako beste ondasun higigarri batzuen ondorioz gertatzen badira edo lurralde horretan bete behar diren edo erabil daitezkeen eskubideen ondorioz gertatzen badira.

Aurreko idatz-zatian zehaztutako irizpide horien arabera, errentaren bat bi lurraldeetan lortu dela pentsa badaiteke, tributazioa lurralde historikoei egokituko zaie, ordaindu behar duena pertsona fisikoa bada eta ohiko egoitza Euskadin badu.

Establezimendu iraunkorrik gabe lan egiten duten zergadunek lortutako errentei dagozkion konturako atxikipen eta sarrerak, lortu edo produzitu diren lurraldeko Administrazioak eskatuko ditu.

Euskal erakunde publikoetako fondo propioetan parte hartzetik ateratako dibidenduak zein bestelako etekinak, baita Kapital higigarriak emandako korritu, kanon eta bestelako etekinak eta aurreko irizpideen arabera, errenta bat bi Administrazioetan batera lortutzat jo badaiteke, euskal lurraldean lortu edo produzitutakoak bezala ulertuko dira honako kopuru hauetan:

a) Erakundeak edo establezimendu iraunkorrak badira eta zergak Euskadin bakarrik ordaintzen badituzte, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

b) Erakundeak edo establezimendu iraunkorrak badira eta zergak bi administrazioetan ordaintzen badituzte, Euskadin egindako eragiketa-kopuruaren arabera ordaintzen duten errenten zatiak.

derechos que deban cumplirse o se ejerciten en dicho territorio. En particular se consideran incluidas:

- Las ganancias patrimoniales derivadas de derechos o participaciones en una entidad, residente o no, cuyo activo esté constituido principalmente por bienes inmuebles situados en territorio vasco.

- Las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de derechos o participaciones en una entidad, residente o no, que atribuyan a su titular el derecho de disfrute sobre bienes inmuebles situados en territorio vasco.

k) Las ganancias patrimoniales derivadas de otros bienes muebles situados en territorio vasco o de derechos que deban cumplirse o se ejerciten en dicho territorio.

Cuando con arreglo a los criterios anteriores, una renta se pudiera entender obtenida simultáneamente en ambos territorios, su exacción corresponderá a los Territorios Históricos cuando el pagador, si es persona física, tenga su residencia habitual en el País Vasco.

Las retenciones e ingresos a cuenta correspondientes a las rentas obtenidas por los contribuyentes que operen sin establecimiento permanente se exigirán por la Administración del territorio en el que se entiendan obtenidas las correspondientes rentas.

Las rentas satisfechas por entidades privadas o establecimientos permanentes derivadas de la participación en fondos propios, intereses, cánones y otros rendimientos de capital mobiliario y ganancias patrimoniales procedentes de valores emitidos, así como cuando, conforme a los criterios antes previstos, una renta se pudiera entender obtenida simultáneamente en ambos territorios, se considerarán obtenidas o producidas en territorio vasco en la cuantía siguiente:

a) Cuando se trate de entidades o establecimientos permanentes que tributen exclusivamente al País Vasco la totalidad de las rentas que satisfagan.

b) Cuando se trate de entidades o establecimientos permanentes que tributen conjuntamente a ambas Administraciones, la parte de las rentas que satisfagan en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco.

Hala ere, letra honetan jasotako kasuetan, likidazioa egoitzaduna ez den horren izenean aurkezten duen pertsonaren, erakundearen edo establezimendu iraunkorraren ohiko bizilekua edo zerga-egoitza dagoen lurraldeko administrazioak izango du etekin guztiak ordainarazteko eskumena, nahiz eta gero, behar bada, beste administrazioari konpentsazioren bat eman behar izan, beste administrazio horren lurretan egindako eragiketa-kopuruari dagokion heinean.

No obstante, en estos casos la Administración competente para la exacción de la totalidad de los rendimientos, así como las devoluciones que proceda practicar, será la del territorio donde tengan su residencia habitual o domicilio fiscal las personas, entidades o establecimientos permanentes que presenten la liquidación en representación del no residente, sin perjuicio de la compensación que proceda realizar a la otra Administración por la parte correspondiente a la proporción del volumen de operaciones realizado en el territorio de ésta última.

Balizko espezifiko horietan, Foru Aldundiek eskatuko dituzte atxikipen eta konturako ordainketak, Euskadin egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, atxiki beharrekoari dagokionean, eta Sozietateen gaineko Zergako arau espezifikoak aplikatuz.

En estos supuestos específicos, las retenciones e ingresos a cuenta se exigirán por las Diputaciones Forales en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco correspondiente al obligado a retener, aplicando las reglas especificadas para el Impuesto sobre Sociedades.

Erakunde ez-egoiliarren Ondasun Higiezinen gaineko Karga Berezia, ondasun higiezina Euskadin badago, lurralde-eskumena duen foru-aldundiari ordaindu behar zaio.

En cuanto al Gravamen Especial sobre Bienes Inmuebles de entidades no residentes, éste corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el bien inmueble esté situado en territorio vasco.

## 4.e. Ondarearen gaineko Zerga

Ondarearen gaineko zerga itundutako zerga da, araudi autonomokoa (24. artikulua); beraz, lurralde historikoetako erakunde eskudunek arautuko dute hura. Arau-eskumen horren muga bakarra Ekonomia Itunean adierazitako harmonizazio-arauak izango dira.

Zerga hau zer Administraziok ordainaraziko duen jakiteko, zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zer Administraziori ordaindu behar dion ikusi beharko da, lurralde-eskumena aintzat hartuta; eta, horretarako, ez da kontuan hartuko zer lurraldetan dauden zergapean diren ondare-elementuak. Beraz, zerga honen lotura-puntua zergadunaren ohiko bizilekua da; hau da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren lotura-puntu bera.

Zerga ordaintzeko betebehar erreala duten subjektu pasiboen kasuan, ondasun eta eskubide guztiak Euskadin baldin badaude, foru-aldundiei egokituko zaie zerga ordainaraztea. Horretarako, Euskadin kokatuta daudela ulertuko da, hain zuzen ere, lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak.

Azken egoitza Euskadin izan duten ez-egoiliarrek Ondarearen gaineko Zerga norberaren betebeharraren arabera ordaintzea aukeratzen badute, lurralde erkidean edo foru-lurraldean

## 4.e. Impuesto sobre el Patrimonio

El Impuesto sobre el Patrimonio tiene carácter de tributo concertado de normativa autónoma (artículo 24). Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos pueden regular este Impuesto sin otras limitaciones que las propias normas de armonización contenidas en el Concierto Económico.

Este tributo, se exigirá por la misma Administración tributaria, en razón del territorio, a la que esté sujeto el contribuyente por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, independientemente del territorio en el que radiquen los elementos patrimoniales objeto de tributación. En definitiva, por tanto, el punto de conexión de este Impuesto es la residencia habitual del contribuyente, en coincidencia con el establecido para la tributación personal sobre la renta.

En el caso de los sujetos pasivos por obligación real de contribuir, la exacción del Impuesto corresponderá a las Diputaciones Forales cuando el mayor valor de los bienes y derechos radique en territorio vasco. Se entenderá, a estos efectos, que radican en territorio vasco los bienes y derechos que estuvieran situados, pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en dicho territorio.

Cuando el no residente que hubiera tenido en el País Vasco su última residencia, opte por tributar conforme a la obligación personal, podrá tributar en territorio común o foral conforme a su respectiva

ordaindu ahal izango dute eta aukeratzen duten lurraldeko arautegia bete beharko dute.

normativa.

## 4.f. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoaren pean dago (25. artikulua). Lurralde-eskumena dauen foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori, honako kasu hauetan:

a) “Mortis causa” eskuraketetan, eta bizitza-aseguruen onuradunek aseguratuarenheriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapenarenegunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

b) Ondasun higiezinen dohaintzetan, ondasun horiek euskal lurraldean kokatuta baldin badaude.Letra honetan xedatutakoa dela-eta, ondasun higiezinen dohaintzatzat hartuko dira Baloreen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan aipatutako dohaineko balore-eskualdatzeak.

c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badauka sortzapenaren egunean.

d) Zergapekoak egoitza atzerrian daukanean, baldin eta ondasun edo eskubide guztiak euskal lurraldean kokatuta badaude, euskal lurraldean erabil badaitezke edo euskal lurraldean bete behar badira. Bizi-aseguruetako hitzarmenetatik lortutako kopuruen kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru-erakundeekin egin bada, edo euskal lurraldean egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin.

Aurreko idatz-zatiko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak egoitza Euskadin eskuratu zuenetik zerga ordaindu beharra sortu arte 5 urte baino gutxiago pasa badira. Ez zaie arau hori ezarriko Autonomia Estatutuaren 7 artikuluaren arabera izaera politikoz euskaldunak izaten jarraitu dutenei.

Agiri baten bidez dohaintza-emaile bakar batek dohaintza-hartzaile bati ondasunak edo eskubideak dohaintzan ematen badizkio eta, aurrez azaldutako a), b), c) eta d) irizpideei jarraituta, etekina lurralde erkidean eta euskal lurraldean sortutakoa dela pentsatu behar bada, eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioari lurralde bakoitzean legokiokeen batez besteko aplikatuko da, bakoitzaren arauen arabera eta lurralde bakoitzari

## 4.f. Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

Así mismo, el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones es un tributo concertado de normativa autónoma (artículo 25), correspondiendo su exacción a la Diputación competente por razón del territorio en los siguientes casos:

a) En las adquisiciones “mortis causa” y las cantidades percibidas por los beneficiarios de seguros sobre la vida para caso de fallecimiento, cuando el causante tenga su residencia habitual en el País Vasco a la fecha del devengo.

b) En las donaciones de bienes inmuebles, cuando éstos radiquen en territorio vasco. A estos efectos, tendrán la consideración de donaciones de bienes inmuebles las transmisiones a título gratuito de los valores a que se refiere el artículo 108 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores.

c) En las donaciones de los demás bienes y derechos, cuando el donatario tenga su residencia habitual en el País Vasco a la fecha del devengo.

d) En el supuesto en el que el contribuyente tuviera su residencia en el extranjero, cuando la totalidad de los bienes o derechos estuvieran situados, pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en territorio vasco, así como por la percepción de cantidades derivadas de contratos de seguros sobre la vida cuando el contrato haya sido realizado con entidades aseguradoras residentes en el territorio vasco, o se hayan celebrado en el País Vasco con entidades extranjeras que operen en él.

En los supuestos contemplados en las letras a) y c), las Diputaciones Forales aplicarán las normas de territorio común cuando el causante o donatario hubiere adquirido la residencia en el País Vasco con menos de 5 años de antelación a la fecha del devengo del Impuesto. Esta norma no será aplicable a quienes hayan conservado la condición política de vascos con arreglo al artículo 7 del Estatuto de Autonomía.

Si en un documento se donasen por un mismo donante a favor de un mismo donatario, bienes o derechos y, por aplicación de los criterios a), b), c) y d) antes descritos, el rendimiento deba entenderse producido en territorio común y vasco, corresponderá a cada uno de ellos la cuota que resulte de aplicar, al valor de los donados cuyo rendimiento se le atribuye, el tipo medio que, según sus normas, correspondería al valor de la totalidad

egotzitako dohaintzen balioaren etekinaren gainean, eta hortik aterako da lurralde bakoitzari dagokion kuota.

de los transmitidos.

Dohaintzak metatu behar diren kasuetan, Euskadiri zein kuota dagokion jakiteko, metatutako dohaintza guztien balioari legokiokeen batez bestekoa aplikatu behar zaio egun eskualdatuta dauden ondasun eta eskubideen balioari, bere arauen arabera. Horretarako, metatutako ondasun eta eskubide guztiak honako hauek izango dira: aurreko dohaintzetatik datozenak eta egun eskualdatu direnak.

Así mismo, cuando proceda acumular donaciones, corresponderá al País Vasco la cuota que resulte de aplicar, al valor de los bienes y derechos actualmente transmitidos, el tipo medio, que según sus normas, correspondería al valor de la totalidad de los acumulados. A estos efectos se entenderá por totalidad de los bienes y derechos acumulados, los procedentes de donaciones anteriores y los que son objeto de la transmisión actual.

## 4.g. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Europar Batasunaren araubidearekin harmonizatuta dago Balio Erantsiaren gaineko zergaren araubidea. Europar Batasuneko araubideak berariaz araututako zenbait alderdi finkatzera mugatzen da Estatuek zerga horretan duten arautze-ahalmena. Era berean, errealitate horrek eta zergaren ezaugarriek bultzatuta, ordainarazpen-ahalmena banatzera mugatzen da zerga horren itunketa, arautze-ahalmenak zergaren kudeaketaren zenbait alderdi baino ezin baititu erabaki.

Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berak erabiliko dira hura eraentzeko (26. artikulua), lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpen- eta sarrera-ereduak ezberdin arautzeko aukera izango badute ere. Hala ere, eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Subjektu pasiboa egoera hauetakoren batean badago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumen esklusiboa izango dute foru-aldundiek (27. artikulua):

- Zerga-egoitza Euskadin izan eta aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez badute.

- Euskal lurraldean bakarrik jarduten badira eta aurreko urtean 6 milioi euro baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez badute, zerga-egoitza non duten aintzat hartu gabe.

Horrez gain, foru-aldundiek eragiketa-bolumenaren arabera ordainaraziko dute zerga, baldin eta subjektu pasiboak euskal lurraldean eta lurralde erkidean jarduten badu; betiere, 6 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena egiten badu eta zerga-egoitzan non duen aintzat hartu gabe.

## 4.g. Impuesto sobre el Valor Añadido

El Impuesto sobre el Valor Añadido está armonizado en el conjunto de la Unión Europea. La capacidad normativa de los Estados se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria. Ello, junto a las características propias del Impuesto, ha significado que en su concertación se atienda al reparto de la capacidad exaccionadora, dado que la capacidad normativa se limita solo a aspectos relacionados con su gestión.

Así, el Concierto establece (artículo 26) que el IVA debe regirse por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, a excepción de los modelos y plazos de ingreso. Si bien, los modelos de declaración e ingresos han de contener, al menos, los mismos datos que los de territorio común y los plazos de ingreso para cada período de liquidación no deben diferir sustancialmente de los previstos en el Estado.

Las Diputaciones Forales exaccionarán (artículo 27) de forma exclusiva el Impuesto sobre el Valor Añadido cuando el sujeto pasivo se encuentre en alguna de las siguientes circunstancias:

- Que tenga su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el año anterior no fuera superior a 6 millones de euros.

- Que opere exclusivamente en el País Vasco y su volumen total de operaciones exceda de 6 millones de euros, cualquiera que sea el lugar del domicilio fiscal.

Además, las Diputaciones Forales exaccionarán el Impuesto en proporción al volumen de operaciones, si el sujeto pasivo opera en territorio común y vasco, siempre que el volumen total de operaciones exceda de 6 millones de euros, independientemente de su domicilio fiscal.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 6 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da kontuan. Jardueran emandako lehen urtea ez bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko.

Eragiketak Europar Batasunaren barruan egindakoak badira, aurrez azaldutako eran ordainaraziko da BEZa, eragiketa hauen kasuan izan ezik:

- Garraiobide berrien Erkidego barruko erosketak, baldin eta erosketak egiten dituzten pertsona edo erakundeen eragiketak Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik erabat salbuetsita badaude edo zerga horren pean ez badaude, garraiobideak behin betiko matrikulatzen diren lurralde erkideko edo euskal lurraldeko Administrazioak ordainaraziko du.

- Jarraian azalduko diren eragiketak egiten badira, Estatuko Administrazioak ala lurralde-eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du Zerga, subjektu pasiboaren egoitzari erreparatuta:

  a) Erkidego barruan eskuratutako ondasunak, baldin eta eskuraketak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo Zergari buruzko arauetan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta horiek Zergari kenketa osoa edo partziala egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboek egin badituzte, edo enpresaburu nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoek egiten badituzte.

  b) Erkidego barruan egindako ondasun-eskuraketak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun-errekarguaren araubidean egiten badira.

Horrenbestez, 6 milioitik beherako eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboei zerga-egoitzaren irizpidea aplikatzen zaiela eta suposamendu bereziak daudela alde batera utzita, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumena nork duen zehazteko, eragiketak non egin diren ikusi behar da.

Ekonomia Itunak, 28. artikuluak, arau zehatzak ezartzen ditu, eragiketak zer lurraldetan egiten diren zehazteko. Subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela ulertuko da, baldin eta

En el supuesto de inicio de actividad, para el cómputo de la cifra de 6 millones de euros, se atenderá al volumen de las operaciones realizado en el primer año natural. Si el primer año de actividad no coincidiera con el año natural, las operaciones realizadas desde el inicio de las actividades se elevarán al año.

La exacción del Impuesto correspondiente a las operaciones relacionadas con el tráfico intracomunitario de bienes se realizará en los términos especificados anteriormente, salvo los supuestos siguientes:

- Por las adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos efectuadas por particulares o por personas o entidades cuyas operaciones estén totalmente exentas o no sujetas al IVA, corresponderá a la Administración del territorio común o vasco en el que dichos medios de transporte se matriculen definitivamente.

- La exacción se exigirá por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón del territorio, según que el sujeto pasivo esté domiciliado en territorio común o foral, en los siguientes supuestos:

  a) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto por opción o por haberse superado el límite cuantitativo establecido en la normativa reguladora del Impuesto, efectuadas por sujetos pasivos que realicen exclusivamente operaciones que no originan derecho a deducción total o parcial de aquél, o por personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales.

  b) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes en régimen simplificado, régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca y régimen de recargo de equivalencia.

Por lo tanto, salvando el criterio simplificador del domicilio fiscal para los sujetos pasivos con un volumen total de operaciones no superior a 6 millones de euros, y los supuestos específicos, el criterio que determina la competencia para la exacción del Impuesto sobre el Valor Añadido, es el lugar donde se realizan las operaciones.

El Concierto (artículo 28) establece reglas precisas para determinar cuando una operación se realiza en uno u otro territorio. Se entiende que un sujeto pasivo opera en un territorio cuando realiza en él

ondasunak eta zerbitzuak lurralde horretan entregatzen edo ematen baditu. Euskal Autonomia Erkidegoan egindakotzat joko dira eragiketa hauek:

entregas de bienes o prestaciones de servicios. Se entienden realizadas en el País Vasco las siguientes operaciones:

a) Ondasun-emateak:

a) Entregas de bienes:

Ondasun higigarri gorpuzdunak euskal lurraldean eman direla esan daiteke, lurralde horretatik uzten badira hartu behar dituenaren eskuetan. Aldiz, ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, espedizioa edo garraioa hasten denean euskal lurraldean badago ulertuko da han eman dela. Ondasun higigarriei buruzko arau orokor horiek salbuespenak dituzte, eragiketak lurralde batean ala bestean egozteko modua egokitzeko:

Entrega de bienes muebles corporales, cuando la puesta a disposición del adquirente se realice desde dicho territorio. Si los bienes deben transportarse, la entrega se entenderá realizada en territorio vasco cuando los bienes se encuentren en dicho territorio al tiempo de iniciarse la expedición o el transporte. Estas reglas generales sobre bienes muebles tienen excepciones que buscan una mayor adecuación para imputar las operaciones a uno u otro territorio:

- Ondasun-emaileak eraldatutako ondasunak ematen badira, emate hori euskal lurraldean egindakotzat joko da, baldin eta lurralde horretan egin bada emandako ondasunen azken eraldaketa.

- Industriako elementuak instalatzea eskatzen duten ondasunak ematen badira eta instalatzeko edo muntatzeko lanen balioa kontraprestazioaren balioaren % 15 baino txikiagoa bada, hura euskal lurraldean emandakotzat joko da prestatze- eta fabrikazio-lanak lurralde horretan egin badira.

- Erkidegoko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako betekizunak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasun-ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

- Si se trata de bienes transformados por quien realiza la entrega, se entiende realizada la entrega en el País Vasco si se realizó en dicho territorio la última transformación de los bienes entregados.

- Si se trata de entregas con instalación de elementos industriales, y el coste de la instalación o montaje no excede del 15% del total de la contraprestación, se entiende realizada la entrega en el País Vasco, si se realizaron en dicho territorio los trabajos de preparación y fabricación.

- Si se trata de bienes que deben ser objeto de expedición o transporte iniciado en otro Estado miembro, y se cumplan los requisitos previstos en la normativa reguladora del IVA para la aplicación del régimen de ventas a distancia, la entrega se entenderá realizada en el País Vasco cuando finalice en él dicho transporte.

Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badaude.

Las entregas realizadas por los productores de energía eléctrica, cuando los centros generadores de la misma radiquen en territorio vasco.

Ondasun higiezinen emateak, ondasunok euskal lurraldean badaude.

Las entregas de bienes inmuebles cuando los bienes estén situados en territorio vasco.

b) Zerbitzu-emateak:

b) Prestaciones de servicios:

Zerbitzuak euskal lurraldean emandakotzat joko dira, baldin eta lurralde horretatik ematen badira. Horren salbuespen izango dira beste lurralde batzuetan dauden higiezinekin lotutako prestazioak eta aseguru eta kapitalizazioko eragiketak.

Las prestaciones de servicios se entenderán realizadas en territorio vasco, cuando se efectúen desde dicho territorio, salvo las prestaciones relacionadas con bienes inmuebles que radiquen en otro territorio y las operaciones de seguro y capitalización.

Hala ere, zenbait eragiketak irizpide errazago bati jarraitzen diote, eta horien lotura-puntua subjektu pasiboaren zerga-egoitza da. Euskal lurraldean egindakotzat jotzen dira zerga-egoitza lurralde

No obstante, existe una serie de operaciones en las que, siguiendo un criterio simplificador, el punto de conexión es el domicilio fiscal del sujeto pasivo. Se entienden realizadas en el País Vasco las siguientes

horretan duten pertsonek egindako eragiketa hauek:

operaciones efectuadas por personas cuyo domicilio fiscal se encuentra en dicho territorio:

- Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek edo arrantzontzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

- Entregas realizadas por explotaciones agrícolas, forestales, ganaderas o pesqueras y armadores de buques de pesca de productos naturales no sometidos a transformación, que procedan directamente de sus cultivos, explotaciones o capturas.

- Garraio-zerbitzuak, etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak barne.

- Los servicios de transporte, incluso los de mudanza, remolque y grúa.

- Garraiobideak alokatzea.

- Los arrendamientos de medios de transporte.

Ez da inportazioaren zergape-egitateari buruzko lotura-punturik ezartzen, Estatuaren esklusiboa baita.

No se establece punto de conexión respecto del hecho imponible importaciones, puesto que éste es competencia exclusiva del Estado.

Adierazitako arauei jarraituz, subjektu pasiboak Administrazio bati baino gehiagori ordaindu beharko balie, zerga-likidazioen emaitzak dagokion administrazioari egotzi beharko zaizkio, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoari erreparatuta eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek lurralde bakoitzean egutegiko urtean egindako ondasun-emate eta zerbitzuenak izan behar dute, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsitakoak. Salbuetsitakoek kenketa-eskubidea dakarte.

En el supuesto de que el sujeto pasivo deba tributar, conforme a las reglas expuestas, a más de una Administración, el resultado de las liquidaciones del Impuesto, incluyendo el correspondiente a las operaciones intracomunitarias, se imputará en proporción al volumen de las contraprestaciones, excluido el IVA, correspondientes a las entregas de bienes y prestaciones de servicios gravadas y las exentas con derecho a deducción que se hayan realizado en los territorios respectivos durante el año natural.

Urte naturalean behin-behinean aplikatzekoak izango diren proportzioak erabakitzeko, aurreko urteko eragiketei erreparatuko zaie. Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio-aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatuko du, beraren ustez lurralde bakoitzean egin dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azken erregularizazioa egingo da.

Las proporciones provisionalmente aplicables durante cada año natural serán las determinadas en función de las operaciones del año precedente. La proporción provisional aplicable en los períodos de liquidación del primer año natural del ejercicio de la actividad será fijada por el sujeto pasivo según su previsión de las operaciones a realizar en cada territorio, sin perjuicio de la regularización final correspondiente.

Hala ere, aurretiaz Ekonomia Itunean aurreikusitako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazita, posible izango da bestelako proportzio bat aplikatzea, aktiboak bat egiten, bereizten edo ekartzen badira eta lurralde erkidean edo foru-lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta proportzioa nabarmen aldarazten bada. Betiere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetariko edozeini aplikatu beharreko proportzioak ehuneko 15 gora edo behera, gutxienez, egiten badu.

No obstante, podrá aplicarse, previa comunicación a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa prevista en el Concierto, una proporción diferente en los casos de fusión, escisión y aportación de activos, así como de inicio, cese, ampliación o reducción de actividad en territorio común o foral que conlleve una variación significativa de la proporción. En todo caso, se considerará que la variación es significativa, cuando suponga la alteración de 15 o más puntos porcentuales en la proporción aplicable a cualquiera de los territorios.

Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean Zergaren gainean egindako azken aitorpen-

En la última declaración-liquidación del Impuesto correspondiente a cada año natural, el sujeto pasivo

likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu -garai horretan egindako eragiketen arabera-, eta aurreko likidazio-aldietan Administrazio bakoitzarekin egindako deklarazioak erregularizatuko ditu, dagokion moduan.

calculará las proporciones definitivas según las operaciones realizadas en dicho período, y practicará la consiguiente regularización de las declaraciones efectuadas en los anteriores períodos de liquidación con cada una de las Administraciones.

Subjektu pasiboek Zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten Administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, betiere, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira.

Los sujetos pasivos presentarán las declaraciones-liquidaciones del Impuesto ante las Administraciones competentes para su exacción, en las que constarán, en todo caso, la proporción aplicable y las cuotas que resulten ante cada una de las Administraciones.

Administrazioen lana izango da bidezkoak diren itzulketak egitea, bakoitzari dagokion proportzioan.

Las devoluciones que procedan serán efectuadas por las respectivas Administraciones en la cuantía que a cada una le corresponda.

Zerga lurralde bakarrean ordaintzen duten subjektu pasiboen ikuskapena egitea lurralde horretako ikuskapen-zerbitzuei dagokie (29. artikulua). Subjektu pasiboak lurralde batean baino gehiagotan ordaintzen badu zerga, zerga-egoitzako lurraldeko ikuskapen-zerbitzuen lana izango da haren ikuskapena egitea. Arau horren salbuesten dira, zerga-egoitza EAEn izan arren, eragiketen gutxienez % 75 lurralde erkidean egiten dituzten subjektu pasiboak. Azken kasu horretan, Estatuko Administrazioari dagokio ikuskapenak egitea.

La inspección de los sujetos pasivos (artículo 29) que tributen sólo en un territorio corresponde a los servicios de Inspección de ese territorio. En caso de que los sujetos pasivos tributen en más de un territorio, la inspección la realizarán los servicios del territorio donde los sujetos pasivos tengan su domicilio fiscal. Excepción a esta regla son aquellos que, aún teniendo su domicilio fiscal en el País Vasco, realicen en Territorio Común al menos el 75% de sus operaciones, correspondiendo la inspección a la Administración del Estado.

### 4.h. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

### 4.h. Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoaren pean dago. Hala ere, lurralde historikoek ez dute halako eskumenik izango sozietate-eragiketetan eta kanbio-letretan edo horien ordezko balioa edo igorpen-zeregina duten agirietan, horrelakoetan arau erkideak bete beharko baitira (30. artikulua).

El Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados es un tributo concertado de normativa autónoma. La capacidad normativa de las instituciones competentes de los Territorios Históricos (artículo 30) queda limitada en lo que se refiere a operaciones societarias, letras de cambio y documentos que suplan a la misma o realicen función de giro, que deben regirse por la normativa común.

Foru-aldundiek ordainaraziko dute zerga hori, kasu hauetan (31. artikulua):

La exacción corresponderá a las Diputaciones Forales (articulo 31) en los siguientes casos:

Ondasun higiezinak kostu bidez eskualdatzen direnean eta alokatzen direnean, eta ondasun horien eskubide errealak -baita bermekoak ere-osatu edo eskubide horiek kostu bidez ematerakoan, ondasunok euskal lurraldean kokatuta badaude.

En las transmisiones onerosas y arrendamientos de bienes inmuebles y en la construcción y cesión onerosa de derechos reales, incluso garantía, que recaigan sobre los mismos, cuando éstos radiquen en territorio vasco.

Baloreen Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan jasotako kasuetan, baloreak eskualdatzen dituen erakundearen aktiboko ondasun higiezinak euskal lurraldean badaude.

En los supuestos previstos en el artículo 108 de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, cuando radiquen en territorio vasco los bienes inmuebles integrantes del activo de la entidad cuyos valores se transmiten.

Ondasun higigarriak, aziendak eta kredituak kostu bidez eskualdatzerakoan eta horien gaineko eskubideak osatzerakoan eta eskubide horiek kostu bidez lagatzerakoan, baldin eta eskuratu behar dituena pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badauka; edo, pertsona juridikoa bada eta Euskadin badauka zerga-egoitza.

En las transmisiones onerosas de bienes muebles, semovientes y créditos, así como en la construcción y cesión de derechos sobre los mismos, cuando el adquirente, siendo persona física, tenga su residencia habitual en el País Vasco y siendo persona jurídica tenga en él su domicilio fiscal.

Baloreen eskualdaketetan, eragiketa non formalizatu den ikusi beharko da.

En las transmisiones de valores se atenderá al lugar de formalización de la operación.

Higigarrien hipoteka edo eskualdaketarik gabeko bahitura osatzerakoan edo tartean itsasontzi edo aireontziak dauden kasuetan, egintza horiek zein lurraldetan inskribatu behar diren hartuko da kontuan.

En la constitución de hipoteca inmobiliaria o prenda sin desplazamiento o se refiera a buques o aeronaves, se considerará el territorio donde los actos hayan de inscribirse.

Mailegu soilak, fidantzak, higiezinez bestelakoen alokatzeak eta pentsioak osatzen direnean, baldin eta mailegu-hartzailea, fidantza-hartzailea, errentaria edo pentsioduna pertsona fisikoa bada eta ohiko bizilekua Euskadin badu; edo pertsona juridikoa bada eta zerga-egoitza Euskadin badu. Maileguak berme erreala duenean, berriz, hipotekadun ondasun higiezinak euskal lurraldean badaude, edo lurralde horretan inskribatu badaitezke higigarrien hipotekak edo eskualdaketarik gabeko bahiturak.

En la constitución de préstamos simples, fianzas, arrendamientos no inmobiliarios y pensiones, cuando el prestatario, afianzado, arrendatario o pensionista, siendo persona física, tenga su residencia habitual en el País Vasco o, siendo persona jurídica tenga en él su domicilio fiscal. Sin embargo, si se trata de préstamos con garantía real, cuando los bienes inmuebles hipotecados radiquen en territorio vasco o sean inscribibles en él las respectivas hipotecas mobiliarias o prendas sin desplazamiento.

Mailegu bat lurralde erkidean eta foru-lurraldean kokatutako hainbat ondasun higiezinen gaineko hipotekarekin bermatuta badago, edo lurralde bietan inskribatu daitekeen higigarrien hipotekarekin nahiz eskualdaketarik gabeko bahiturarekin bermatuta badago, batzuei eta besteei egozten zaien erantzukizunaren araberako proportzioan ordainduko zaio zerga Administrazio bakoitzari, eta, zehaztapen hori eskrituran beren beregi jasorik ez badago, ondasunen balio egiaztatuen araberako proportzioan.

Si un mismo préstamo estuviese garantizado con hipoteca sobre bienes inmuebles sitos en territorio común y foral o con hipoteca mobiliaria o prenda sin desplazamiento inscribible en ambos territorios, tributará a cada Administración en proporción a la responsabilidad que se señale a unos y otros y, en ausencia de esta especificación expresa en la escritura, en proporción a los valores comprobados de los bienes.

Ondasunen administrazio-emakidetan, ondasun horiek Euskadin kokatuta baldin badaude; eta obrak burutu edo zerbitzuak ustiatu behar direnetan, baldin eta Euskadin egiten edo eskaintzen badira. Arau horiek aplikatuko dira administrazio-emakidekin berdinesten direlako zergapean dauden administrazio egintza eta negozioetan ere.

En las concesiones administrativas de bienes, cuando éstos radiquen en el País Vasco, y en las ejecuciones de obra o explotaciones de servicios, cuando se ejecuten o presten en el País Vasco. Estas reglas serán aplicables en caso de actos y negocios administrativos que tributen por equiparación a las concesiones administrativas.

Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten ondasunak ustiatzeko emakidak direnean, euskal lurraldean okupatzen duten azaleraren arabera eskatuko da Zerga.

En caso de concesiones de explotación de bienes que superen el ámbito territorial del País Vasco, se exigirá el Impuesto en proporción a la extensión que ocupen en el territorio vasco.

Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten obrak egiteko emakidak direnean, euskal lurraldean egingo diren obren zenbatekoa kalkulatuko da, eta horren arabera eskatuko da Zerga.

Tratándose de concesiones de ejecución de obras que superen el ámbito territorial del País Vasco, se exigirá el Impuesto en proporción al importe estimado de las obras a realizar en territorio vasco.

Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten zerbitzuak ustiatzeko emakidak direnean, ukitutako erkidegoen guztizkoaren gainean Euskadiko biztanleriak eta azalerak dauzkaten ehunekoen batez besteko aritmetikoaren arabera eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten emakida mistoak badira, aurreko hiru paragrafoetan jasotako irizpideak emakida-zatiari aplikatuta eskatuko da Zerga.

Euskadiko lurralde-eremua gainditzen duten administrazio-emakidak badira, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak ikuskatuko du zerga, baldin eta erakunde emakidadunaren zerga-egoitza bertan badago.

Sozietate-eragiketetan, hauetako ezaugarriren bat badute:

a) Erakundeak zerga-egoitza EAEn izatea.

b) Erakundeak sozietate-egoitza Euskadin izatea, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga-administrazio bateko lurralde-esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu sozietate eragiketa antzeko beste zergaren batekin kargatzen.

c) Erakundeak eragiketa batzuk Euskadin ere egin behar ditu, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta sozietate-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste Zerga Administrazio bateko lurralde-esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu antzeko beste zergaren batekin kargatzen sozietate-eragiketa.

Notarioen eskritura, akta eta testigantzetan, baldin euskal lurraldean baimendu edo ematen badituzte. Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko karga-kuota gradualari lotuta dauden kasuetan, baldin eta ondasunak edo egintzak inskribatzeko erabili behar den erregistroa Euskadiko lurraldean badago.

Truke-letra eta ordezko balioa edo igorpen-zeregina duten agirietan eta ordaindukoetan, bonoetan, obligazioetan eta antzeko tituluetan, Euskadin igortzen edo jaulkitzen badira; atzerrian igortzen badira, lehenengoz eduki dituenak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Euskadiko lurraldean baldin badauka.

Si se trata de concesiones de explotación de servicios que superen el ámbito territorial del País Vasco, se exigirá el Impuesto en función de la media aritmética de los porcentajes que representen su población y su superficie sobre el total de las Comunidades implicadas.

Tratándose de concesiones mixtas que superen el ámbito territorial del País Vasco, se exigirá el Impuesto mediante la aplicación de los criterios recogidos en los tres párrafos anteriores a la parte correspondiente de la concesión.

En caso de concesiones administrativas que superen el ámbito territorial vasco, su inspección corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el domicilio fiscal de la entidad concesionaria radique en dicho territorio.

En operaciones societarias, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que la entidad tenga en el País Vasco su domicilio fiscal.

b) Que la entidad tenga en el País Vasco su domicilio social, siempre que la sede de dirección efectiva no se encuentre situada en el ámbito territorial de otra Administración Tributaria de un Estado miembro de la Unión Europea o, estándolo, dicho Estado no grave la operación societaria con un impuesto similar.

c) Que la entidad realice en el País Vasco operaciones de su tráfico, cuando su sede de dirección efectiva y su domicilio social no se encuentren situadas en el ámbito territorial de otra Administración Tributaria de un Estado miembro de la Unión Europea o, estándolo, estos Estados no graven la operación societaria con un impuesto similar.

En las escrituras, actas y testimonios notariales, cuando unas y otros se autoricen u otorguen en territorio vasco. En los supuestos sujetos a la cuota gradual del gravamen de Actos Jurídicos Documentados, cuando radique en territorio vasco el Registro en el que deba procederse a la inscripción o anotación de los bienes o actos.

En las letras de cambio y documentos que suplan a las mismas o realicen funciones de giro, así como en los pagarés, bonos, obligaciones y títulos análogos, cuando su libramiento tenga lugar en el País Vasco. Si el libramiento se hubiera producido en el extranjero, cuando su primer tenedor tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en dicho territorio.

Anotazio prebentiboetan, Euskadin kokatutako erregistro publikoetan egiten badira.

En las anotaciones preventivas practicadas en Registros Públicos sitos en el País Vasco.

## 4.i. Aseguru-sarien gaineko Zerga

## 4.i. Impuesto sobre las Primas de Seguros

Ekonomia Ituneko 32. artikuluak dio Aseguru-sarien gaineko zerga itundutako zerga dela, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dutela.

En el Concierto (artículo 32) se dice que es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Foru-aldundiek ordainaraziko dute Zerga baldin eta arriskua edo konpromisoa, aseguru- eta kapitalizazio-eragiketetan, euskal lurraldean kokatzen bada. Arriskua euskal lurraldean kokatuta dagoela uste izango da, baldintza hauek betetzen badira:

La exacción corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales cuando la localización del riesgo o del compromiso, en las operaciones de seguro y capitalización, se produzca en territorio vasco. Se entenderá que la localización del riesgo se produce en territorio vasco, de acuerdo a las siguientes reglas:

Asegurua higiezinei badagokie, ondasun higiezinak Euskadiko lurraldean egotea. Arau bera erabiliko da asegurua higiezinei eta horien edukiari dagokienean, baldin eta aseguru-poliza batek berak estaltzen baditu higiezinak eta edukia. Asegurua higiezinean dauden ondasun higikorrei soilik badagokie, merkataritzako igarobidean dauden ondasunak izan ezik, ondasun higikorrak barruan dituen higiezin hori Euskadiko lurraldean egotea.

En el caso de que el seguro se refiera a inmuebles, cuando los bienes radiquen en dicho territorio. La misma regla se aplicará cuando el seguro se refiera a bienes inmuebles y a su contenido, si este último está cubierto por la misma póliza de seguro. Si el seguro se refiere exclusivamente a bienes muebles que se encuentran en un inmueble, con excepción de los bienes en tránsito comercial, cuando el bien inmueble en el que se encuentran los bienes radique en dicho territorio.

Aseguru batek berak estaltzen baditu lurralde erkidean eta euskal lurraldean dauden higiezinak, lurralde bakoitzean kokatutako higiezinen balioa kontuan hartuta kokatuko da bakoitzean. Asegurua edozein ibilgailu-motari badagokio, ibilgailua bere izenean matrikulatuta daukan pertsonak edo erakundeak ohiko bizilekua edo zerga-egoitza Euskadin edukitzea.

Cuando en un mismo seguro se cubra el riesgo de inmuebles ubicados en territorio común y vasco, se localizará en cada uno de ellos en función del valor de los inmuebles radicados en uno y otro territorio. En el caso de que el seguro se refiera a vehículos de cualquier naturaleza, cuando la persona o entidad a cuyo nombre se encuentre matriculado tenga su residencia habitual o domicilio fiscal en el País Vasco.

Asegurua bidaietan edo aseguru-hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gerta litezkeen ezbeharrei badagokie, eta aseguruaren iraupena gehienez lau hilabetekoa bada, aseguru-hartzaileak aseguru-kontratua euskal lurraldean sinatzea.

En el caso de que el seguro se refiera a riesgos que sobrevengan durante un viaje o fuera del domicilio habitual del tomador del seguro, y su duración sea inferior o igual a cuatro meses, cuando se produzca en territorio vasco la firma del contrato por parte del tomador del seguro.

Aurreko arauetan berariaz azaldu gabeko kasu guztietan, aseguru-hartzailea pertsona fisikoa bada, beraren ohiko bizilekua Euskadiko lurraldean egotea; eta bestela, kontratuan ageri den

En todos los casos no explícitamente contemplados en las reglas anteriores, cuando el tomador del seguro tenga su residencia habitual en el País Vasco y, en otro caso, si el domicilio social o

sozietatearen egoitza edo sukurtsala Euskadiko lurraldean egotea.

sucursal a que se refiere el contrato se encuentre en dicho territorio.

Konpromisoa euskal lurraldean kokatutzat joko da baldin eta, bizitza-aseguruei dagokienez, aseguruaren kontratatzaileak lurralde horretan badu ohiko bizilekua, pertsona fisikoa izanez gero; pertsona juridikoa izanez gero, euskal lurraldean izan behar du bere sozietate-egoitza edo sukurtsala, kontratua sukurtsalari buruzkoa bada.

En el caso de seguros sobre la vida, se entenderá que la localización del compromiso se produce en territorio vasco, cuando el tomador del seguro tenga en el mismo su residencia habitual, si es una persona física, o su domicilio social o una sucursal, caso de que el contrato se refiera a ésta última, si es una persona jurídica.

Kokapenari buruzko berariazko araurik ez bada, aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak euskal lurraldean eginak direla ulertuko da baldintza hauek betetzen badira: kontratatzailea enpresari edo profesionala izatea; eragiketa horiek bere enpresa edo lanbide jardueretan ari denean hitzartzea; eta bere ekonomia-jardueraren egoitza Euskadiko lurraldean edukitzea, edo establezimendu iraunkorren bat edukitzea lurralde horretan, edo, bestela, bere bizilekua bertan edukitzea.

En defecto de las normas específicas de localización anteriores, se entienden realizadas en territorio vasco las operaciones de seguro y capitalización, cuando el contratante sea un empresario o profesional que concierte las operaciones en el ejercicio de sus actividades y radique en dicho territorio la sede de su actividad económica o tenga en el mismo un establecimiento permanente o, en su defecto, el lugar de su domicilio.

## 4.j. Zerga bereziak

Ekonomia Ituneko 33. artikuluak dio Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dituztela zerga bereziak.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berberak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ezingo dute alde handirik izan Estatuko Administrazioak ezarritakoekin.

Fabrikazio Zerga Bereziak foru-aldundiek eskatuko dituzte, horien sortzapena Euskadin egin bada.

Kuota eskuratu duen Adminitrazioaren egitekoa izango da Fabrikazio Zerga Berezien itzulketak egitea, hala eskatzen zaionean.

Dena dela, ezin baldin bada jakin kuotak zein Administraziok eskuratu zituen, itzultzeko eskubidea duen pertsonaren lurraldeko Administrazioak itzuli beharko ditu. Euskadin dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere, lurralde-eskumena duten aldundien eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik jakinarazpena egin beharko zaie Estatuko Administrazioari eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.

## 4.j. Impuestos Especiales

Los Impuestos Especiales (artículo 33) se regirán por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado.

No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Los Impuestos Especiales de Fabricación se exigirán por las respectivas Diputaciones Forales, cuando el devengo de los mismos se produzca en el País Vasco.

Las devoluciones de los Impuestos Especiales de Fabricación serán efectuadas por la Administración en la que hubieran sido ingresadas las cuotas cuya devolución se solicita.

No obstante, en los casos en que no sea posible determinar en que Administración fueron ingresadas las cuotas, la devolución se efectuará por la Administración correspondiente al territorio donde se genere el derecho a la devolución. El control de los establecimientos situados en el País Vasco, así como su autorización, en cualquiera de sus regímenes, será realizado por las respectivas Diputaciones Forales, no obstante lo cual será necesaria la previa comunicación a la Administración del Estado y a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia foru-aldundiek eskatuko dute, garraiobideak euskal lurraldean matrikulatzen baldin badira behin betiko. Halaber, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen tasen % 10 bitartean handi dezakete zerga-tasa lurralde historikoetako erakunde eskudunek.

Respecto al Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte se exigirá por las respectivas Diputaciones Forales, cuando los medios de transporte sean objeto de matriculación definitiva en territorio vasco, pudiendo las Instituciones competentes de los Territorios Históricos incrementar los tipos de gravamen hasta un máximo del 10% de los tipos establecidos en cada momento por el Estado.

Matrikulazioa egiteko, gaiari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritako irizpideak bete beharko dira. Zehazki, pertsona fisikoek ohiko bizilekua duten probintzian matrikulatuko dute garraiobidea.

La matriculación se efectuará conforme a los criterios establecidos por la normativa vigente sobre la materia. En particular, las personas físicas efectuarán la matriculación del medio de transporte en la provincia en que se encuentre su residencia habitual.

## 4.k. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga

## 4.k. Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos

Ekonomia Ituneko 34. artikuluak dio itundutako zerga dela, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dutela.

Este Impuesto es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 34).

Aurrekoa bete beharrekoa izango bada ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek horien zerga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen barruan.

No obstante lo anterior, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen del Impuesto dentro de los límites vigentes en cada momento en territorio común.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

Así mismo, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Foru-aldundi eskudunak ordainaraziko du Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga, kasu hauetan:

Corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales la exacción del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos en los siguientes casos:

a) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen salmentak edo emateak, euskal lurraldean kokatutako txikizkako salmenta-establezimendu publikoetan egindakoak badira, salbu eta ekoizkinok lurralde horretatik kanpo jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketak. Alderantziz, foru-aldundiek ordainaraziko dute zerga, kanpotik ekarritako ekoizkinak Euskadiko lurraldean jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei lurralde erkidetik egiten zaizkien horniketak direla-eta.

a) Ventas o entregas de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto efectuadas en los establecimientos de venta al público al por menor situados en territorio vasco, con excepción de los suministros que se efectúen a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos fuera de dicho territorio. Correlativamente, corresponderá a las Diputaciones Forales la exacción del impuesto por los suministros que se efectúen desde territorio común a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y

consumirlos en el País Vasco.

b) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen inportazioak eta Europar Batasunaren barruko eskuraketak, baldin eta inportatzaileak edo eskuratzaileak berak zuzenean kontsumitzen baditu ekoizkinok, bere kontsumorako establezimenduan, eta establezimendu hori Euskadiko lurraldean badago.

b) Importaciones y adquisiciones intracomunitarias de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto, cuando se destinen directamente al consumo del importador o del adquirente en un establecimiento de consumo propio situado en el País Vasco.

Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako erabakietan, lurralde historikoetako eta EAEko erakunde eskudunek adierazi zuten zerga horrek bildutako dirua ez dela aurrekontu-xedeetarako erabiliko, eta horren erabilpenak bete egon behar dituela Europar Batasuneko araubideak arautatako printzipio hauek:

Por otra parte, en los acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos y la Comunidad Autónoma del País Vasco reconocen que este Impuesto es un tributo cuya recaudación queda afectada en su totalidad a fines de naturaleza distinta a la presupuestaria, y que debe cumplir para su adecuación al ordenamiento comunitario los principios siguientes:

- Osasun-politiken edo ingurumena babesteko politiken helburuak betetzeko esparruan erabili behar da.

- Debe integrarse en el marco de los objetivos de políticas de sanidad o de protección del medio ambiente.

- Lurralde erkidean indarrean den gutxieneko zerga-tasa baino tasa handiagoa ezarriz gero, igotako kopuruak egokia eta proportzionala izan behar du lortu nahi diren helburuarekiko.

- La fijación de tipos de gravamen por encima del mínimo vigente en territorio común debe ser adecuado y proporcional a la finalidad de los objetivos a conseguir.

Hori dela-eta, Administrazioek konpromisoa hartzen dute Zergak bildutako dirua osasun-gastuak finantzatzeko erabiltzeko. Alabaina, lurralde erkidean indarrean den gutxieneko zerga-tasatik gora ezarritako tasei dagokien zatiagatik bildutako dirua ingurumen-jarduerak finantzatzeko erabil daiteke.

Por ello, las Administraciones se comprometen a afectar en su totalidad los rendimientos que se deriven del Impuesto a la financiación de gastos sanitarios. Sin embargo, los recursos producidos por la parte de los tipos de gravamen que superen el mínimo vigente en territorio común, podrán dedicarse a financiar actuaciones medioambientales.

Gainerako zeharkako zergak arautzeko (35. artikulua), Estatuak unean-unean ezarrita dituen oinarrizko abiaburu, arau substantibo, zerga-egitate, salbuespen, sortzapen, oinarri, tasa, tarifa eta kenkariak aplikatuko dira.

En cuanto a los demás impuestos indirectos (artículo 35) se regirán por los mismos principios básicos, normas sustantivas, hechos imponibles, exenciones, devengos, bases, tipos, tarifas y deducciones que los establecidos en cada momento por el Estado.

## 4.I. Jokoaren gaineko Zergak

Jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira, eta araudi autonomoa aplikatu behar zaie, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan (36. artikulua). Estatuak unean-unean ezarrita duen arautegia aplikatuko da zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

Lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du Zori, Enbido eta Adur Jokoen gaineko Tasa, zerga-egitatea Euskadin egiten bada (37. artikulua).

## 4.I. Tributos sobre el Juego

Los tributos que recaen sobre el juego tienen el carácter de tributos concertados de normativa autónoma, cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco (artículo 36). Se aplicará la misma normativa que la establecida en cada momento por el Estado en lo que se refiere al hecho imponible y sujeto pasivo.

En cuanto al punto de conexión para la exacción (artículo 37), la Tasa sobre los Juegos de Suerte, Envite o Azar corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando el hecho

imponible se realice en el País Vasco.

Lurralde-eskumena duen foru-aldundiak ordainaraziko du Zozketa, Tonbola, Apustu eta Ausazko Konbinazioen gaineko Zerga Tasa, halako jokoak egiteko baimena Euskadin eman behar den kasuetan.

La Tasa Fiscal sobre Rifas, Tómbolas, Apuestas y Combinaciones Aleatorias será exaccionada por la Diputación Foral competente por razón de territorio, cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco.

## 4.m. Tasak

Foru-aldundiei dagokie eska daitezkeen tasak ordainaraztea euren jabariko gune publikoen erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik, zerbitzuak betetzeagatik eta zuzenbide publikoko araubidean foru-aldundiek eurek egiten dituzten jarduerengatik (38. artikulua).

## 4.m. Tasas

La competencia para la exacción de las tasas corresponderá a las Diputaciones Forales en cuanto sean exigibles por la utilización o aprovechamiento especial de su propio dominio público, por la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público efectuadas por las mismas (artículo 38).

## 4.n. Toki Ogasunak

Derrigorrez ezarri beharreko hiru zergen (Ondasun higiezinen gaineko zerga, Ekonomia-jardueren gaineko zerga eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga) lotura-puntuak arautzen ditu Ekonomia Itunak.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da (39. artikulua). Zerga horrek lurralde historikoetako landa-ondasun eta hiri-ondasunak zergapetuko ditu.

Ekonomia-jardueren gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauek arautuko dute (40. artikulua). Lurralde-irizpidea da udal- eta probintzia-kuoten lotura-puntua, eta probintzia bat baino gehiagotan jarduteko kuotena, berriz, subjektu pasiboaren ohiko bizilekua edo zerga-egoitza. Azken kuota hori dagokion Administrazioari ordainduta (foru-administrazioa edo orokorra), bi lurraldeetan jarduteko ahalmena izango du subjektu pasiboak.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da, zirkulazio-baimenean ageri den egoitza lurralde horretako udalerriren batekoa baldin bada (41. artikulua).

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek toki-erakundeen gainerako zerga propioen eta prezio publikoen araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute (42. artikulua), bakoitzak bere lurraldean; betiere, araubide erkideko tokiko zerga-sistemarentzako ezarritako egitura orokorra eta egitura horren printzipioak kontuan izanda eta Ekonomia Itunak araututako harmonizazio-arauak

## 4.n. Impuestos Locales

En el Concierto se establecen los puntos de conexión de los tres impuestos de implantación obligatoria: Impuesto sobre Bienes Inmuebles, Impuesto sobre Actividades Económicas e Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

El Impuesto sobre Bienes Inmuebles se regulará (artículo 39) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, y gravará los bienes de naturaleza rústica y urbana sitos en su respectivo Territorio Histórico.

El Impuesto sobre Actividades Económicas se regulará (artículo 40) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos. El punto de conexión para la exacción en el caso de las cuotas municipales y provinciales es estrictamente territorial, mientras que en el caso de las cuotas que facultan para ejercer en más de una provincia es la residencia habitual o domicilio fiscal del sujeto pasivo. El pago de esta última cuota a la Administración que corresponda, común o foral, faculta para el ejercicio de la actividad en ambos territorios.

El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica se regulará (artículo 41) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación corresponda a un municipio situado en su territorio.

Respecto del resto de tributos locales y precios públicos, el Concierto Económico (artículo 42) reconoce la capacidad de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario de otros tributos propios de la Haciendas Locales, atendiendo a la estructura general del sistema tributario local de régimen común y a los principios que la inspiran,

beteta.

respetando las normas de armonización previstas en el propio Concierto.

Araubide erkidekoez gainera, zeharkako bestelako zerga-modurik ezin dela ezarri dio Ekonomia Itunak, baldin eta zerga-modu horien etekina Euskadiko lurraldetik kanpora beste batengan isla badaiteke edo harengan eragina izan badezake.

Así mismo, el Concierto previene del establecimiento de figuras impositivas de naturaleza indirecta distintas a las de régimen común, cuyo rendimiento pueda ser objeto de traslado o repercusión fuera del territorio del País Vasco.

Ekonomia Itunaren II. kapituluak finantza-harremanak arautzen ditu, eta harreman horien printzipio orokorrez diharduela, arautzen du toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean erabiltzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkiela; hala ere, horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik.

En todo caso, dentro de los principios generales del Capítulo II, de relaciones financieras, se establece que las facultades de tutela financiera que, en cada momento, desempeñe el Estado en materia de Entidades Locales, corresponderán a las Instituciones competentes del País Vasco, sin que ello pueda significar, en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades locales vascas inferior al que tengan las de régimen común.

## 5. ESTATUAREN ETA EUSKADIREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Ekonomia Itunaren 4. artikuluak lankidetza-printzipioa arautzen du, eta oinarrizko printzipiotzat hartzen du. Printzipio horrek, oro har, zehaztu egiten du Estatuak eta lurralde historikoek nola erabili behar dituzten zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko eskumenak eta zerga-arauak ematekoak. Hain zuzen, 4. artikuluak honako hau dio:

